

...eta
Kittoa!

2020-III-13

1134 zkia.

Euskerak
badu zer
kontatu



KIA
NAIA CAR



Outlet Special Days

Martxoaren 13tik 27ra

Ibilgailu berriak, bigarren eskukoak, km0...



Apunta zaituz 943707033



Apalategi kalea EIBAR

CITROËN
ZAEER MOTOR



4.000 €^{-RAINOKO} DESKONTUAK

ZURE IBILGAILUA PEUGEOT ETORMOBILen BERRITZEAGATIK

EUSKO JAURLARITZAREN RENOVE PLANA + PEUGEOT-eko DESKONTUAK

Ez galdu aukera!

PEUGEOT GENERAZIO BERRIA HIBRIDO ENTXUFAGARRIAK UNBORING THE FUTURE

4 KMO UNITATE

LIKIDAZIOAN



MOTION & e-MOTION

Kontsultatu auto efiziente eta alternatiboetan
inbertitzeko laguntzen Egitaraua (PAVEA) Energiaren Euskal Erakundeak:
www.eve.eus/Programa-de-ayudas/2020/Renove-Vehiculos-2019

Entzufa daitezkeen hibridoen gama: WLTP balioak: Erregai-kontsumoa (L/100 km) gutxienez eta gehienez 1,3 eta 2,2 artean ziklo konbinatuan - CO₂-emisioko (g/km) gutxienez eta gehienez 28 eta 49 artean ziklo konbinatuan. NEDC balioak: CO₂-aren emisioak (g/km) 32tik 36ra. Informazio gehiago peugeot.es webguneko WLTP atalean (<http://wltp.peugeot.es>)

ZATOZ PROBATZERA EIBARKO PEUGEOT ETORMOBIL KONTZESIONARIORA



PEUGEOT
ETORMOBIL
www.etormobil.com

BERGARA

Olabarrena auzoa, z/g
20570 Bergara
Tel.: 943 10 17 17

EIBAR

Otaola Etorb., 22
20600 Eibar
Tel.: 943 20 09 66

ZIORLA AUTOAK

Santa Maña, 19
48215 Iurreta-Durango
Tel.: 946 21 71 30



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILEA:
...eta kitto! Euskara Elkarte.

HELBIDEA:
Urkizu, 11. 20600 Eibar

TELEFONOAK:
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285.

FAXA: 943 20 28 72.

ASTEKARIAREN E-MAILAK:
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK:
elkartea@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,
Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi
eta Silbia Hernandez

ADMINISTRAZIOA:
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA:
Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:
J.L. Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:
Malen Jainaga
eta Malen Illarramendi

HIZKUNTZA ARDURA:
Juan Andres Argoitia
eta Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:
Itziar Albizu eta Belen Ulazia

TELEFONOA: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:
Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA:
Idoia Labado

TIRADA: 8.150 ale

INPRIMATEGIA:
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A: ...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA: SS/430/92.
ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!* k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



**Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza
Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria**



**EIBARKO
UDALA**



**GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDEZTA)**

eskutitzak

– OHARRA –

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko esku-bidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu irain-

garririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitetze (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

Erredakzioa

DATORREN ASTEAN EZ DA ALERIK IZANGO

Datorren asteko zubia dela-eta (San Jose eguna, hilak 19, jai da) ez da alerik izango zuen buzoietan. Hurrengo alea hilaren 27an kaleratuko dugu, normaltasunez.

...eta kitto! Euskara Elkarte

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

MOTXAILLATU.- Txakurtu, lotsa galdu. "Soldautzan, guztiz motxaillatu zan len zan apala".

astean esanak

"Bada genero-biolentziaren gaian erreparoa izaten ditudan arloa: 70, 75 edo 80 urtetik gorako senar-emazteen kasuena. Hor arraroa da genero-biolentzia izatea. Kasu gehienetan gizarteak baztertuta daude, euretako bat gaixorik dago -gehienetan emakumea, gizonak zaintzen duena- eta puntu batera iristen da arazoa gizonak itxaropen guztiak galtzen dituela, emaztea hil eta bere buruz beste egiteraino. Egoera larriagotzen da dementzia azaltzen bada, ondo tratatzen ez badute, ingurukoak konturatzen ez badira eta jeloskor bihurtzen bada"

(MARIA CASTELLANO, MEDIKU FORENTSEA)

"Sei urterekin dagoeneko neskek uste dute mutilak azkarragoak direla, matematiketan esaterako. Suspenditzen badute, kale egin dutelakoan daude; mutilek zorte txarrari botako diote errua edo irakasleak mania dietela esango. Horrelakoak hezkuntzak sortutako mikromatxismoak dira. Badago gizon sukaldaririk? Ez, chef-ak dira. Modistorik? Ezta, diseinatzaileak direlako. Handitzen doaz eta... zortzitik batek pentsatzen du gauza dela tenisean Serena Williams-i irabazteko. Txikitatik saiatu behar gara: mutikoak `Paula gustatzen zait, ni berari ez´ esaten badigu, ez diogu `eroriko da´ erantzun behar; `ba laga bakan´ aproposagoa da"

(IRIA MARAÑON, IDAZLEA)

"Gaur egun bagaude gauzen degradazio momentu batean. Badago jendea horri aurre egin, mahai gainean alternatibak jarri eta bere bidea egiten ari dena, baina baita besoak gurutzatu eta korranteak eramaten uzten duena ere. Mediterraneoan tragedia bat dugu; baina, hori jakinda ere, oraindik oporleku da askorentzat. Egungo albisteekin lotuz, zer gertatuko litzateke koronabirusa estatuan sartu dutenak, italiarrak izan beharrean, errefuxiatuak izango balira? Seguruenik gauza onik ez. Zelan jokatu den txinatarrekin eta italiarrekin ere aztertzea da, zer esan den komunitate bakoitzari buruz"

(ENEKO BARBERENA, IDAZLEA)

Jubilatu etxiak itxi eta jarduerak bertan behera laga dittue

Untzagako jubilau etxetik jakiñarazi dabenez, Osasun Saillak emondako aholkuari jarraituko detse eta, probintzia osoko beste jubilau etxiak bezala, jendiarendako atiak itxiko dittu, atzera be zabaltzeko abisua jaso arte. Bittartian, zentruan egitten diran jarduera guztiak bertan behera geratuko dira. Zentruko arduradunak informaziñua jaso ahala ezagutzera emoten juango dirala azaldu dabe, Facebook (Jubiletxe Untzaga) eta Twitter (@jubiletxe) bittartez, baitta prentsaren eta jubilau etxian bertan ipiñiko dittuen oharren bittartez be.

Bestalde, Eibarko Pentsiodunen Plataformak be bertan behera laga dittu astelehenetako mobilizaziñuak, badaezpada, eta oingoz ez dabe konzentraziñorik egingo datozen bi astiotan.



Udaberriko erosketa-bonuen salmenta astelehenian hasiko da



Astelehenian hasiko da Eibar Merkataritza Gune Irekiaren erosketa-bonuen udaberriko kanpaina. Oinguan herriko 174 establezimenduk hartuko dabe parte eta bonuen salmenta astelehenian bertan hasiko dabe EMGI-ren buleguan (Untzaga Plaza, 7): bezeruak 40 euro ordaindu eta erosketak egitten gatzteko 50 euroko bonua (bittan banatuta, 25+25 euro) jasoko dau trukian. Apirillaren 5era arte erabilili leikez bonuak eta salmentarako ordutegixa hauxe da: astelehenetik barixakura, 09:15etatik 13:45etara eta 16:15etatik 18:15etara eta barixakuetan, barriz, 08:15etatik 14:45etara.

Lore, Landare eta Zuhaitz
X. Azoka

Martxoak
21

11:30 Haurrentzako tailerrak **Ordua: 10:00 - 14:30**

EIBARKO UDALA **DEBEMEN** **deKOLORE** **Eibarko Urkizu Plazan**

Eskola guztiak ixtea erabagi dau Eusko Jaurlaritzak

Atzo eguardixan ja-kiñarazi eban Eusko Jaurlaritzak EA-Eko ikastetxe guztiak ixtea, koronabirusari aurre egiteko prebenziño neurri modura. Eskolak ixteko badaezpadako neurrixa gaur sartzen zan indarrin.



Klima aldaketarekin lotutako programia preparau dabe martxorako



Martxuaren 21etik 29ra bittartian garatuko daben Euskadiko Klima Aldaketaren Astearen baitan hainbat jarduera antolatu ditu Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzaren laguntasunarekin. Eibarrerako osatu daben programia hiltaren 24an hasiko da, 19:00etatik aurrera **Elisa Sainz de Murieta**, Basque Centre for Climate Change-eko ikerlari-xak Portalean emongo daben "Klima aldaketaren nazio-arteko gailurrak: non gaude eta nora goaz?" izenburuko hitzaldixarekin. Ordubete inguruko iraupena izango dau saiuk eta sarrerria duan izango da. Horrekin batera, erakusketia, taillar didaktikuak, ipuin-kontaktetak eta dokumentalaren emanaldixa be egingo dira. Eta martxuaren

28xan, Planetaren Ordua kanpainaiekin bat eginda, 20:30xetatik 21:30xetara argi-xak emetatzeko deiza egingo dabe, hori be Asteklima 2020 programaren baitan.

autuan

EIBAR BHI-KO LOTERIXIA

Eibar BHI institutoko DBH4ko ikasliak saldu eban 78.110 loterixa zenbakixaren dirua bueltatzeko azken eguna martitzena (martxuak 17) izango da. Oin arteko moduan, arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara jua leike kobratzera, Jardinetan, Ignazio Zuloaga institutoko eraikiñaren sarreran.



UDABERRIKO LORE AZOKIA

Martxuaren 21ian egingo dabe Udaberriko Lore eta Landaren XI. Azokia Urkizun, Udalak eta Dekolorek antolatuta. Urteroko martxan, goiz osuan, 09:00etatik 14:00xetara bittartian egingo da martxan azokia eta bertan lore eta landare aukera zabala egingo da, nahi dabenak erosteko moduan.



Martxoaren
21etik 29ra
www.asteklima.eus

martxoak 24, 19:00 (60 minutu), Portalea **HITZALDIA**

"Klima aldaketaren nazioarteko gailurrak:
non gaude eta nora goaz?"
Elisa Sainz de Murieta (bc3-Basque Centre
for Climate Change) euskeraz

martxoak 25 - apirilak 5, 16:00-20:00, **asteazkenetik larunbatera** **Armagintzaren Museoa**

ERAKUSKETA
"Cambiando el cambio climático"

martxoak 27, 17:30, Portalea **IPUIN KONTAKETA**

"Zuriñeren abenturak"
Haurrentzat, doan, euskeraz

martxoak 27, 19:00, Portalea **TAILER DIDAKTIKOA**

"Klima aldaketarekin zer degu jokoan?"
Gazte eta helduentzat, doan, euskeraz

martxoak 28, 20:30-21:30 **ARGI ITZALKETA**

"Planetaren ordua"

apirilak 1, 19:00 (118 minutu), Coliseoa **DOKUMENTALA**

"Mañana"
Doan, gazteleraz





Udal Artxibuak 1994ko Emakumiaren Eguneko irudixak berreskuratu ditte

Emakumiaren Nazioarteko Egunaren harira, Udal Artxibuak 1994ko bideua berreskuratu eta interneten ikusgai ipiñi dau, urte horretan ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatuta egin zan mahaingurua gogora ekarritta: "Feminismoa eta gazteak" izenekuan Andoni Aizpuru eta Anne Igarriburu ETBko aurkezle gaztiak eta Maialen Lujanbio Zugasti eta Jesus Mari Irazu bertsolarixak egon ziran parte hartzen, orduan sasoian Emakundeko idazkari-koordinatzaillia eta Maria de Maeztu Foro Feministako kidia zan Begoña Muruaga moderatzaillie zekela. Soiñua ona ez bada be, irudixetan aurpegi ezagun asko ikusi leikez.

Deba eta inguruan jaixotakuen bazkarixa

Deban, Lasturren, Itziarren, Endoian eta Elorriagan jaixo eta Eibarren bizi diranak bazkarixa egingo dabe maiatzaren 9xan Eibarren, Kasinuan (Eibarko Bizikleta Plazan). Bazkarira juan nahi dabena apirillaren 24rako emon biharko dau izena, 50 euro sartuta Laboral Kutxako kontu honetan: 0231160153 (dirua sartzetarakuan izen-abizenak argi ipiñitta). Informaziño gehixago nahi dabena 615790496 (Otolá), 682180170 (Agustín) edo 688825743 (Mikel) telefono zenbakixetara deittu leike.

Gaur amaittuko da ...eta kitto!-ren Gilda Lehiaketa

Eguaztenaz geroztik martxan dagan Eibarko Gilda Lehiaketaren VI. ediziñua gaur amaittuko da. Guztira 21 tabernak emon dabe izena ...eta kitto! Euskara Elkartiak Euskeraz Primeran! egitasmuaren barruan antolatutako lehiaketan: Aguiñaspi, Ametsa, Arkupe, Bacoleku (Ego Gain), Bacoleku (Urkizu), Baisi, Baratze, Birjiñape Berria, Boulevard, Chic, Dos de Mayo, Guridi, Ipur sagardotegia, Iturri, Jantaedan, O'Hara, O'Jays, Ongi Etorri, Skape, Suberoa eta Zelai Bide. 150 euroko sarixa jasoko daben irabazlia aukeratzeko arduria Mirreia Alonso, Ruben Etxaniz eta Josu Mugerza epaimahaikidiak eukiko dabe, baiña horrekin batera, publikuaren sarixa be banatuko dabe, gildak jan dittuen bezeruak emondako botuak jaso eta zenbatu ostian. Gaiñera, botua emoten dabenen artian zozketia egingo dabe eta irabazliari asteburuko egonaldixa bi lagunendako oparituko detse.



CLARA SAEZ ALIENDE

2020ko otsailaren 7an hil zen

"Nahiz eta gureartetik urrutira joan zaren, zure goxotasuna beti izango dugu presente gure bihotzetan"

BEHEKO LAGUNAK



ZAPOREAK LESBOS proiektua



EIBAR ETA ERMUA

bat eginik / unidos por la solidaridad

ERRONKA / RETO

EIBARREN lenteja pardinak
ERMUAN arzoa

BILKETA / RECOGIDA

martxoak 16-21 marzo

Zaporeak-en aldeko pintxo-potia atzeratu egingo dabe

Koronabirusarekin ez kutsatzeko azken egunotan martxan ipintzen hasi diran neurrixak ikusita, hillairen 21ian egittekua zan pintxo-pote solidarioa aurrerago egittia erabagi dabe antolatzaillak (noiz egingo dan ez dabe oindiok erabagi). Halanda be, Lesboseko errefuxiatueri laguntzeko lenteja pardinak (Eibarren) eta arzoa (Ermuan) biltzen segiduko dabe berdin-berdin. Hillairen 21era arte jasoko dittue lentejak hainbat tokittan, tartian ...eta kitto! Euskara Elkartearen lokalian (Urkizu, 11 solairuaratean), astegunetan 09:00etatik 14:00xetara eta 17:00etatik 19:00etara. Bestalde, Zaporeak proiektuari laguntzeko saltzen ari diran rifen zozketia hillairen 25ian izango da.

Lurralde osoko alargunak batzarra egingo dabe hillairen 28xan

Altzoa alargunen alkartiak aditzera emon dabenez, taldiaren sorreraren 25. urteurrena dala-eta, Eibarren egingo da XXXII. Alargunen Lurralde Asanblada, martxuaren 28xan. Batzarra Coliseo antzokixan izango da, 10:00etatik aurrera, eta ondoren, animatzen diranak, bazkarixa egingo dabe Unzaga Plaza hotelian (14:30xetan). Juan nahi dabenak aurretik izena emon biharko dau, martitzenetan 16:00etatik 18:00etara Portalean egitten daben eskulan taillarrian edo, bestela, 640 53 16 78 telefono zenbakira deittuta.



...eta kitto!-ren Urteko Batzarra hillairen 26xan

Martxuaren 26xan egingo dau ...eta-kitto! Euskara Elkarteak Urteko Batzar Nagusixa, alkartiaren egoitzan (Urkizu, 11 solairuarate). Lehen deialdixa 19:00etarako egin dabe eta, ordurako bazkidien erdixa baiño gitxiago agertuz gero, ordu erdi geruago hasiko da batzarra, 19:30xetan. Egunerako gai-zerrendia

haxe da: 2019ko gestiño-balantzia; 2020rako egitasmuak, bazkide-kuotak eta aurrekontuak; galdera-erantzunak eta iradokizunak; zuzendaritza barrixaren hautaketia eta funtzionamendua; eta pis-kolabisa. Bazkideren batek argibideren bat nahi izanez gero, bulegora etorri edo deitzeko (943200918) aukeria daka.

“Ez nau izutzen negu hurbilak uda beteko beroan dakidalako irauten duela orainak ere geroan”

Maite zaitugu, Clarita.



Plataformak lanean jarraituko du, "gertatutakoa argitu arte"

Zaldibar Argitu plataformak deituta, Ipurua zelaiaren parean elkarretaratzeari egin zen martitzen arratsaldean, Eibar eta Realaren arteko partidua baino lehen, nahiz eta azken orduko erabakiaren eraginez derbia atxita jokatu. Bertan bildutakoek berriaz gogoratu zituzten herri ekimenez sortutako plataformaren aldarrikapenak: Joaquin eta Alberto aurkitzea, herritarren osasuna eta ingurumena bermatzea eta gertatutakoaren inguruko ardura guztiak argitzea. Horrekin batera, atzorako hiru orduko lanuztea deitu zuten plataformatik Eibarren, Ermuan, Zaldibarren, Elgetan eta Mallabian, eta horren harira hainbat mobilizazio egin ziren



eguerdian eta arratsaldean. **Aurrera begira**, plataformak asteroko bilera irekiekin zein mobilizazioekin jarraituko duela aurreratu du, eta herritar guztiak gonbidatu nahi ditu ahal duen neurrian behintzat batzarretan parte hartzera. Martitzenetan izaten dira bilerak, 19:00etan Arrate Kul-

tur Elkartearen (1. pisuan). Bestela ere, plataformaren jardueraren berri jasotzeko interesa duenak, horretarako hainbat bide aurkituko dituzte sare sozialetan: Twitterren (@ZaldibarArgitu), Instagramen (Zaldibar_Argitu) eta Facebooken (@ZaldibarArgituOrain).

Joaquin eta Albertoren omenezko ekitaldi hunkigarria Eitzagan

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, Alberto Sololuze eta Joaquin Beltranen omenezko ekitaldia egin zen barixaku arratsaldean Eitzagako plazan, zaborte-gia hondoratu zenetik hilabetea bete zela eta Zaldibar Argitu plataformak deituta. Joaquin eta Albertoren lagun eta senideek herritarren berotasuna eta elkartasuna jaso zuten beste behin ere. Ekitaldi motza baina hunkigarria izan zen: lore-eskaintza baino lehen, dantzari batek aureskua dantzatu zuen, txistulariek lagunduta, eta berba batzuentzako tartea ere egon zen: "Alberto

eta Joaquin topatu arte gure osasunaren eta bizitzaren alde eta erantzukizunak argitu arte jarraituko dugu lanean". Horrez gain, gertatu den guztia argitzeko eta berriro ere ez erreplikatzeko eskatu zuten: "Hilabete pasa da, baina ez gaitzela hurrengo hilabeteetan ere egoera berean egon. Arduraz jokatzeko exijitzen dugu. Kontrol falta eta kaos sentipena nabarmen geratu da eta asko kezkatzen gaituzte egon diren isiltasun konplize batzuk. Ezin da gure bizitzekin jokatu. Kargu batzuek erantzukizunak hartu behar dituzte euren gain".



Manifestua sinatu dute unibertsitate eta kultur arloko 84 pertsona ezagunek

Zaldibar Argitu, ereduaren agortzea agerian” izenburupean, esparru akademikoko eta kultur alorreko 84 pertsona ezagunek manifestu bat izenpetu dute. Agiriaren arabera, Zaldibarkoa ez da inguruko herrietako biztanleei soilik eragiten dien kontua, eta gertaera horrek “geure gizartearen zein ingurumena kudeatzeko indarrean dagoen ereduaren agortzea agerian jarri du”. Sinatzaileek dei egin diete erakunde publikoei, sektore pribatuari eta gizarte zibilari “trantsizio ekologiko eta sozialerako eztabaida zintzoa abian jarri eta bideorri bat osa dezaten”.

Zaldibar Argitu, ereduaren agortzea agerian

Zaldibarko zaborteziaren erorketak, krisi sozial eta ekologikoa abiarazi du Euskal Herrian. Gertaera horren larritasuna ikusirik, agiri honen sinatzaileok mahai gainean jarri nahi dugu Zaldibarren jasotakoa ez dela inguruko herrietako biztanleei soilik eragiten dien kontua, eta geure gizartearen zein ingurumena kudeatzeko indarrean dagoen ereduaren agortzea agerian jarri duela.

Lehenik eta behin, desagertutako langileen senideei eta hondamendi ekosozial ho-

nek zuzenean eragin dien auzotarrei geure elkartasuna eta babesik beroena adierazi nahi diegu. Zaldibar Argitu! herri-plataformak senideei eta auzotarrei elkartasuna adierazteko egin dituen ekimenetara batzen gara, egoeraren larriaz jabeturik.

Bigarrenik, premiazkoa da aldarrikatzea osasun publikoari eta herritarren bizi kalitateari modu zuzenean eragiten dieten esparruak kontrol publiko zorrotz eta ardurasuaren begiradapean behar dutela egon. Komunitate zientifikoak aho batez onartua du jendarte aberatsen bizi-ereduak ondorio kaltegarriak sortzen dituela kliman zein ekosistema bizietan, eta hondakinen produkzio masiboa da horren sintoma adierazgarrienetako bat. Erakunde publikoek zorrotz eta zuhurtziaz jokatu ezean, araudiaren betetze mailan, lizentzia kontzesioetan etab. kontrolaezinak diren egoerak sortzeko aukerak biderkatzen dira. Egungo bidegurutzean, arduraren historia geure egin eta Zaldibar moduko gertaerak ahalbidetzen dituen eredu neoliberalak bazterrean uzteko premia urgentea dela azpimarratu nahi dugu.

Zaldibarko gertaerak are gordinago agertu du trantsizio energetiko, ekologiko eta sozialaren beharra. Arrazoi historikoak ere

hala erakutsi du, Zaldibarko zabortegia debekatzeko ahaleginari edo munduko organismo ezberdinetatik azken hamarkadatan etorri zaizkigun hainbat ohartarazpenei kasu egin izan balitz, ez ginateke gaur gauden une arriskutsuan egongo, hondamendi ekosozialaren adierazpen ezberdinen lekuko izanez munduko bazter askotan.

Euskal gizartea (eta batez ere Zaldibar, Elgeta, Ermua eta Eibarreko biztanleak) shock egoeran sartu den honetan, trantsizioari kolektiboki ekiteko eztabaida publikoa gauzatzeko une egokia dela iruditzen zaigu; hori egin ezean, antzeko gertaerak errepikatze-ko aukera estrukturala ez da ezabatuko eta Zaldibar berriak etorri litezke datozen urteetan, oinarriak eraldatzen ez badira.

Dei egiten diegu euskal gizarteko erakunde publiko nagusiei, ekimen pribatuko sektoreei eta gizarte zibilaren baitan dauden eragile ezberdinei, jakintza zientifikoa oinarri hartuta eta datu errealak mahai-gainertuta, trantsizio energetiko, ekologiko eta sozialerako eztabaida zintzoa egin eta bideorri argi bat osatzera, hondakinek behar duten trataera zuzen eta zentzuzkoa barne. Naturak abisua jo digu, berma dezagun etorkizuneko belaunaldientzako euskal lurralde bizigarri bat.

MANIFESTU HAU ONDORENGO IZENEK SINATZEN DUTE:

Enrique Zuazua (Humboldt katedraduna Erlangen)
 Ramón Zallo (EHUko irakasle emeritua)
 Joxerramon Bengoetxea (EHU-Eurobasque),
 Jule Goikoetxea (Idazlea eta EHUko irakaslea)
 Mari Luz Esteban (Antropologoa eta EHUko irakaslea)
 Mario Zubiaga (EHUko irakaslea)
 Joseba Azkarraga Etxagibel (EHUko irakaslea)
 David Hoyos (EHUko irakaslea)
 Eider Rodrigéz Martín (Idazlea eta EHUko irakaslea)
 Iker Iraola (EHUko irakaslea)
 Ander Iturriotz (EHUko irakaslea)
 Ane Larrinaga (EHUko irakaslea)
 Margaret Louise Bullen (EHUko irakaslea)
 Idurre Eskisabel (EHUko irakaslea)
 Gorka Bueno (EHUko irakaslea)
 Uxue Alberdi (Idazlea eta Bertsolaria)
 Harkaitz Zubiri (EHUko irakaslea)
 Zesar Martínez (EHUko irakaslea)
 Juan Hernandez Zubizarreta (EHUko irakaslea)
 Marina Sagastizabal (EHUko irakaslea)
 Koldo Iruzun (EHUko irakaslea)
 Unai Villalba (EHUko irakaslea)
 Iزارo Gorostidi (EHUko irakaslea)
 Mila Amurrio (EHUko irakaslea)
 Edu Zelaieta Anta (EHUko irakaslea)
 Iñaki Carrera (EHUko irakaslea)
 Ion Andoni del Amo (EHUko irakaslea)
 Laura Mintegi (EHUko irakaslea)

Saioa Bilbao (EHUko irakaslea)
 Eñaut Elorrieta (Musikaria)
 Amaia Agirre (EHUko irakaslea)
 Aitor Begoetxea (EHUko irakaslea)
 Miren Artetxe Sarasola (Bertsolaria eta EHUko irakaslea)
 Anjel Errasti (EHUko irakaslea)
 Edorta Arana (EHUko irakaslea)
 Iker Etxano (EHUko irakaslea)
 Ane Labaka Mayo (bertsolaria)
 Igor Elortza (Bertsolaria)
 Mikel Zurbano (EHUko irakaslea)
 Mikel de la Fuente (EHUko irakaslea)
 Julio Soto (Bertsolaria)
 Irene Arrarats (itzultzailea)
 Iban Zaldúa (Idazlea eta EHUko irakaslea)
 Asier Blas Mendoza (EHUko irakaslea)
 Josu Landa (idazlea)
 Iratxe Retolaza (EHUko irakaslea)
 Marta Luxan (EHUko irakaslea)
 Itxaso Fernandez (EHUko irakaslea)
 Petxo Idoaga (EHUko katedraduna)
 Kattalin Miner (idazlea)
 Amaia Serrano Mariezkurrena (EHUko irakaslea)
 María Ruiz Torrado (EHUko irakaslea)
 Xabier Mendiguren Elizegi (Idazlea eta editorea)
 Amagoia Gurrutxaga (Idazlea eta Kultur kazetaria)
 Amaia Alvarez Uribe (EHUko irakaslea)
 Efrén Areskurrinaga (EHUko irakaslea)

Xabier Albizu Landa (EHUko irakaslea)
 Amaia Lasa Alegira (idazlea)
 Luismi Uhartea (EHUko irakaslea)
 Olatz Osa Zubia (editorea)
 Joanmari Larrarte (Kazetari eta idazlea)
 Martín Anso (Txertoako editorea)
 Alaitz Aizpuru (Elkarreko editorea)
 Antxiñe Mendizabal (Elkarreko editorea)
 Veronica Castrillón (EHUko irakaslea)
 Katixa Agirre (EHUko irakaslea eta idazlea)
 Jon Ander Elorriaga (EHUko irakaslea)
 Ines Osinaga (Musikaria)
 Josu Larrinaga (EHUko irakaslea)
 Jose María Rivadeneyra (EHUko irakaslea)
 Alaitz Tresserras (EHUko irakaslea)
 Aitor Garagarza (EHUko irakaslea)
 Juanjo Ugartemendia de la Iglesia (EHUko irakaslea)
 Estiñu Villamor (EHUko irakaslea)
 Elixabete Garmendia Lasa (Kazetaria)
 Idoia Marcellan Barace (EHUko irakaslea)
 Oihane García (EHUko irakaslea)
 Maite Zelaia Garagarza (EHUko irakaslea)
 Joan Mari Torrealdaí (Idazlea)
 Jose Inazio Imaz (EHUko irakaslea)
 Iñaki Barcena (EHUko irakaslea)
 Lore Erriondo Korostola (EHUko irakaslea)
 Maite Arroitauregi (Musikaria)
 Iñaki Zabaleta Imaz (EHUko irakaslea)

+ osasun gida

Dentistak



arat
Hertz Klinika

"Hertz osasuneko profesional taldea zure zerbitzura"

T. 943 20 18 51
info@clinicadentalarat.com
www.clinicadentalarat.com
Toribio Etxebarria 4 - 1. EIBAR

UniverSalud
Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa



bista eder
clínica dental - hertz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19
www.bistaeder.es

Esku onetan egotearen ziurtasuna.
20.000tik gora paziente pozik.
Etorri eta egin irribarre berriz ere.



EIBAR HORTZ KLINIKA
CLÍNICA DENTAL

MAITANE G. IÑIGUEZ

Zerbitzu guztiak klinika berberan

San Agustín, 4 behea ezk. info@eibarclinicadental.com
943 537 076 - 688 884 808 www.eibarclinicadental.com

Pedro Etxebarria Gisasola
DENTISTA

09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO

Calbeton 19 - 3. ezk. Tfnoa: 943 20 72 17



GASTESI
Hertz-Klinika

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia

Errebal, 9 - 1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02



hortz-klinika

B. IZAGIRRE
clínica dental

EGUNERO

Untzaga, 5 - 4. Tel. 943 70 23 85



IRAZABAL
clínica dental

Iribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicalrazabal.com

MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7 - 1. esk. 943-702896

Dietetika/Nutrizioa



NATUR HOUSE

Ainara Iriando Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

Toribio Etxebarria, 22
Mugikorra: 677 551 850

Errehabilitazioa



CRF AMOSTEGI
ERREHABILITAZIOA

- * Fisioterapia / Errekueraketa funtzionala
- * Min-Unitatea
- * Inkontinentzia urinarioak
- * Kirol medikuntza
- * Ama izateko prestakuntza

Muzategi 2 (EIBAR) San Ignacio 2 (ELGOIBAR)
Tfnoa. 943 20 34 46 Tfnoa. 943 74 33 74

Estetika



abontza
clínica estética

Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad

MEDIKUNTZA
ESTETIKOA

KIRURGIA
ESTETIKOA

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

Javier Martin
dokorea

Aurpegi-masailetako Kirurgilaria

AURPEGIA
GAZTETZEKO
KIRURGIA

AURPEGIKO
KIRURGIA
ESTETIKOA

679 334 371
943 120 200

KONTSULTAK: Centro Médico Eibar
KIRURGIAK: Policlínica Gipuzkoa

Fisioterapeutak



FISIOTERAPIA
ZENTRUA

ANE MENDIA
970 Kolegiatu zkia.

- INDIBATERAPIA
- KIROL LESIOAK
- DRENAJE LINFATIKOAK
- POSTURA ZUZENKETEN TRATAMENDUAK

ARRAQUETA, 20
Tf. 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

Ginekologia

Dra. Laura Martinez  Dr. Alejandro Recas

GINECOLOGÍA
EIBAR

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com
dra.martinezgallardo@gmail.com
www.ginecologiaeibar.com

Logopedak

AHOTS-LAN
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA



Isasi, 17 - 1. esk.
943 202691
ahotslan@gmail.com

Diagnostikoa eta tratamendua

| | |
|-------------------|-----------------|
| Degluzio atipikoa | TDAH |
| Disfonia | Berbera arazoak |
| Ikaste-arazoak | TEA |
| | Dislexia |

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

AROR
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA

..... (Ume eta helduendako)

Ana Artamendi

- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ez. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

Okulistikak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada

JOSE ALBERDI
www.oftalberdi.com

San Juan 11 - solairuartea
943 20 19 82

Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

• Presbiziaren kirurgia.



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Podologoak

ELENA AIZPUN
PODOLOGOA



838200124
kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria, 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208

BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050


ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

PODOLOGOA

Maidor Lopez Etxebarria



Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

PODOLOGO
T. ORTOPEDICO

Iñaki Rivero Zabaleta

Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)

Tel. 943 20 86 41

Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA
ETA OSASUN ZENTROA

BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. buloia
www.centroamets.com

Coro Ortíz de Urbina - Master Praktika Klinikoa
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua) - Master P.N.L.
Tel. 675 70 68 07 - Trainer

PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

Lorena Izaguirre Garcia
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA

Errebal, 15 - 1. ez.EIBAR
Zuberoa, 4ZARAUTZ
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Ψ Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206823 eta 686859023

Psikoterapia

RPS: 32/17

FUB
PSIQUIATRIA / PSICOTERAPIA / ALFA EIBAR

FERNANDO URIZAR BARANDIARAN

Medikuntza Psikiatrikoa

Ego Gain, 18 - 1 A (Eibar)
615 71 54 04
Bailen, 9 - 1. ez. (Bilbo)
94 416 49 06
furizar1@yahoo.com



Ikuspegi anitz mintegiaren 10. urteurrenean

Eguazten goizean Euskeraren Transmisioaren edizio berri bat izan genuen Portalea kultur etxean. Hamargarren urteurrena bete da aurtan, eta ekitaldi berezia izan zen hasieratik amaierara arte (alfonbra larrosa, dekorazioa, osagarriak, eszenaratzea, aurkezle lanetan arituen Matriuska...). Emozio eta sorpresa aurpegiak ikusita, aurreikuspenak gainditu direla esan daiteke. 20 hizlari baino gehiagok euren ekarpen eta ikuspegiak azaldu zituzten.

Mintegiaren hasieran, Matriuska aurkezleak (mintegi honetako sinboloak), zentzumenak pizteko gonbitea egin zuen, eta ekitaldian zehar parte-hartzaileak lasai eta gustora sentiarazten aritu zen. Bikain, gainera! Ezer baino lehen, plastilina larrosak banatu zituen publikoaren artean (ia 100 lagun): "Plastilina zeuen barruaren eroale izango da goiza aurrera doan bitartean", aurreratu zuen.

"TRANSMISIOA ETA SOZIALIZAZIOA" mahai-inguruarekin hasi zen mintegia, eta bertan izan ziren **Paula Kasares** (Soziolinguista. UPNA) eta **Jone Miren Hernandez** (Gizarte antropologoa EHU). Dinamizatzaile lanetan **Jaime Altuna** (Gizarte antropologoa) aritu zen.

Euskeraren biziberritzeraren prozesuan gauza asko egin dira 10 urte hauetan, eta

"perspektiban ikusita gauzak aldatuz joan direla" aipatu zuen Jaime Altunak.

Jone Miren Hernandezek 1993-94an euskeraren egoerari buruzko ikerketa egin zuen Lasarteko Udalean. "Transmisioaz aparte beste gauza askori buruz hitz egin genuen. Praktikan sozializazioari buruz aritu ginen, baina terminoa erabili gabe. Momentu hartan nik ez neukan buruan sozializazioaren ideia. Ez zegoen kontzeptu hori". Jone Miren transmisioaren kontzeptuarekin ez zen eroso sentitzen eta atzerrian kontzeptu hori ez zutela erabiltzen ikusi zuen. "Transmisioa emateko ikusi nuen ez zela beharrezkoa hizkuntza bakarrik transmititzea, balioak eta motibazioak transmititzea ere hizkuntza seme-alabei transmititzeko modu bat zen. Sozializazioak bizitza osoan irauten du, errealitate dinamikoa da, eta transmisioa denboran mugatua izan daiteke".

Paula Kasaresek ez du uste kontzeptu biak kontrajarriak direnik, "baina hizkuntzaren sozializazioaren kontzeptua egokiagoa da gure errealitateari begiratzeko. Hizkuntza komunitate bezala, ezin dugu bakarrik familia bidezko transmisioaz hitz egin. Hizkuntza soilik familian transmititzen bada, galtzeko zorian dago. Komunitate osoaren mekanismo sozializatzaile guztiek jokatzeko dute hizkuntzaren transmisioa".

Fokoa familian baino norbanakora pasatu da? Azken urteetan familieren garrantzirik norbanakoaren garrantzira pasatu gara? Paula Kasaresen esanetan, "familia ko-

munikatiboki nola funtzionatzen duen aldatzen ari da. Familia eredu berriak sortu dira, eta etxe barruan bizitzeko moduak aldatu dira. Familiaren pisua ahuldu egin da. Orain arte begiak belaunaldien arteko transmisioan jarri dugu. Orain, intragenerazionalan ipini behar da arreta. Ezker eskumatik ailegatzen diren eragin horiek oso garrantzitsuak dira". Jone Mirenen ustetan "familia tradizionalak pisua izaten jarraituko du, baina nerabe eta gazteek euren familia osatzen dituzte: koadrilak, kirol taldeak... Oso inplikaturik daude familia horietan, eta oso interegarriak dira guretzat".

"EUSKERAREN ROLA GAZTEEN BIZITZAN" gaiaz jardun zuten **Jokin Urganak** (UEMAko hezkuntza arduraduna) eta **Ane Pedruzok** (EuskarAbentura). Dinamizatzailea Urtxintxako **Maite Asensio** izan zen.

Gazteekin egiten dute lan hirurek, eta oso errealitate desberdinak bizi dituzte. UEMA udalari euskaldunen mankomunitatea izanda, bertako gazteek euskeraz hitz egiteko askoz ere aukera handiagoa daukate. Urtxintxan eta EuskarAbenturan Euskal Herri osoko eta, beraz, errealitate soziolinguistiko desberdinetako gazteekin dihardute lanean. EuskarAbenturako edizio bietan parte hartu duten gazteek euskerarekiko kontzientzia badaukatela azaldu zuen Ane Pedruzok, "baina ez denek, batzuk ez dute euren eremu afektiboarekin lotzen. Batzuentzako sekulako esfortzua zen egun osoan



Paula Kasares, Jone Miren Hernandez eta Jaime Altuna.



Jokin Uranga, Ane Pedruzo eta Maite Asensio.

euskeraz egitea eta guk hori txalotu egiten genuen. Garrantzitsua da gaitasunaren araberako txalotzeak egitea". Bestalde, euskeraren egoera soziolinguistikoari buruzko informazio guxi daukate eta "harritura gelditzen dira errealitate desberdinak ezagutzen dituztenean". Horregatik, hausnarketa kolektiboak bultzatzen dituzte.

UEMAko kasuan, 87 herri osatzen dute udalerrri euskaldunen mankomunitatea, eta Jokin Urangak azaldu duenez, "euskera natural erabiltzen dugu gure herrietan; gazteen eguneroko hizkuntza da eta, horregatik, askotan ez dute kontzientziarik, eta horrek hauskor bilakatzen du euskera. Beste herri handiagoetara ikastera doazenean, gazteleara jotzeko arriskua dago. Elkarrekin ahaldundu daitezela da gure helburua, herri handiagoetara joaten direnean eusle papera egin dezaten". UEMAko gazteek euskera maite dute, baina euskerak ez die balio egunerokotasunean. "12 urtetik aurrera zailtasunak dituzte euskeraz kontsumitzeko, ez dute gustoko ezer aurkitzen. Beraz, gazteek euskeraz kontsumitu dezaten produktuak sortu behar ditugu, eroso sentitu daitezzen. Espazio berriak irabazi behar ditugu eta orduan errazagoa izango da. Erreminta bezala erabili behar dugu euskara, eta ez helburu bezala". Urtxintxako Maite Asensioaren esanetan, "gazteak mundu digigitalean ibiltzen dira. Euren gustoko gauzak euskeraz eskaintzea oso inportatea da. Euskerazko eskaintza batzuetan bada, baina zabalkundea ez da egokia".

Euskeraren erabilera guztiona dela ikusgarai behar diegula dio Ane Pedruzok: "Euskera euskaldun ikasleen hizkuntza izatetik hizlarien hizkuntza izatera pasatzea ezinbestekoa da. Rapero eta regetonero euskaldunak daude, eta aniztasuna kontuan hartu behar da. Tribu guztietan euskarak bere lekua izan behar du, eta saritu egin behar zaie ematen dutena".

"EUSKALDUN BERRIAK: NOIZ ARTE BERRI?" solasaldia gidatu zuen **Arrate Gisasolak** (Guraso euskaltzalea eta Ebete-ko kidea). Eta berarekin egon ziren **Esti Amorrortu** (Filologoa eta Linguista. Deustuko Unibertsitatea), **Edorta Lopez Rey** (PRAKTIKATU zerbitzuko koordinatzailea. AEK) eta **Pello Jauregi** (Hezkuntza Zientziak. EHU. Aldahitz egitasmoaren zuzendaria).

Definizioaren arabera, euskera familietatik kanpo ikasi duena da euskaldun berria. Esti Amorrorturen esanetan, "euskaldun berri terminoak karga negatiboa duela konturatu ginen, legitimotasun falta batekin du lotura, eta 'hiztun berri' terminoa erabiltzen hasi ginen. Natibo/ez natibo kontzeptuek ez dute balio gaur egun, ez euskeran ez beste edozein hizkuntzatan ere; ez da gure arazoa bakarrik. Gauzak ez dira hain modu estatikoan ikusten. Dena da prozesu bat. Hiztun mota asko daude. Euskara ikasten ez da inoiz amaitzen, dinamikoa da. Bere ustez euskalgintzan badago ahalegin bat izan dezakeen zentzu negatibo hori kentzeko eta "denok gara euskaldunak" eta horrelako esaldiak gero eta gehiago entzuten dira".

Pello Jauregik esan zuen bera euskaldun berria dela, baina ez duela inoiz ere termino hori erabili. "Ez dakit non dagoen arazoa. Kontzeptuak sortzen dira testuinguru batean eta gero eraldatu egiten dira". Pelloren esanetan, "etiketak komunikatzeko erabiltzen dira, ezinbestekoak dira errealitatea izendatzeko. Batzuk onerako, beste batzuk txarrerako, eta beste batzuk modu neutralean erabiltzen dira. Hortik arazoa dagoela etiketa horrekin? Nik ez dut uste". "Euskera etxean ikasteak ez du esan nahi erraztasun gehiago izango duzunik gero ez baduzu erabiltzen. Beraz, hurbiltzeak egin behar dira erabilera terminoetan, eta ez hizkuntza identitate terminoetan. Tarteko egoerak erabilgarriak izan daitezke euskeraren

normalizaziorako. Potentzialitate horretatik ikusi behar dugu".

Edortak Lopez Reyk ere euskaldun berria bezala aurkeztu zuen bere burua. "Nire inguruan denok gara euskaldun berriak, euskaldun zaharrak gutxiengo etnikoa dira. Etiketa hori izango dugu beti. Euskeraren errealitatearen islada da eta ez du zentzu negatiborik. Gero eta gehiago gara euskaldun berriak eta hau da euskeraren gaur egungo islada". Euskalduntze-prozesuan bidelagunak behar direla azpimarratu du Edorta Lopez Reyk: "euskalduntze prozesuan bidelagunak behar dira eta bidelagun horiek formatu behar dira". Bere ustez garrantzitsuenak da "euskaldunak garela eta euskeraz egiten dugula".





Edorta Lopez Rey, Pello Jauregi, Esti Amorrortu eta Arrate Gisasola.



Petra Elser, Gorka Moreno eta Miren Baranguan.

“MIGRAZIOEN AUKERAK” solasaldian **Petra Elser** (Banaiz Bagara elkarteko zuzendaria) eta **Gorka Moreno** (EHU eta Ikuspegi - Euskal Immigrazioaren Behatoki-ko ikertzailea) egon ziren. Dinamizatzaile moduan **Miren Baranguan** izan genuen (Berrikuntza eta esku-hartzea testuinguru kulturantz eta eleanizetan. Mondragon Unibertsitatea).

Gorka Morenok azaldu zuen denbora guztian migratzaileen gaia arazo edo mehatxu bezala planteatzen dela, eta aukera edo potentzialitate bezala ikusi behar dela, baita arlo sozioekonomikoan ere. *“Narratiba alda-keta hori maila guztietara iritsi behar da”*.

Petra Elser bat etorri zen Morenorekin, baina *“hori nola egin”* da gakoa berarentzat. *“Eskolak soilik euskaldunduko ditu haurrek?”*. Petraren arabera, haur migatzaileen kasuan oso garrantzitsua da euren komunitateko pertsonak euskaldun bezala eta euskal komunitateko kide bezala ikustea. Petrak dio migratzaile askorenzat euskara ezezaguna dela, *“ez dakite existitzen denik ere”*. Baina benetako aukerak eskani behar zaizkie euskaraz bizitzeko: *“etorkinak lan egitera eta bizi-baldintzak hobetzeko etortzen. Benetako tresnak eta aukerak eskaini behar zaizkie euskera ikasteko eta euskeraz lan egiteko”*.

Morenok euskalduntze prozesuan errealitateak eta desirak nahasten ari garela dio. *“Denok nahiko genuke etorkinek euskeraz ikastea, baina hori bideragarria da? Euske-*



...rak duen papera ikusita, nik zailtasunak ikusten ditut lehenengo belaunaldi horrek euskeraz ikasteko. Ikasi nahi duenak aukerak izan behar ditu eta beharrezko neurriak hartu behar dira, baina lortuko ditugun emaitzak oso mugatuak izango dira”. Fokoa bigarren belaunaldian jarri behar dela uste du Morenok: “Uste dut lehenengo belaunaldia belaunaldi galdu bat izan daitekeela. Nola gastatu dirua gurasoekin? Esango nizueke sentsibilizazio kanpainetan gastatzeko, jakin dezaten euren seme-alabentzako zein garrantzitsua izango den euskera. Igogailu soziale-rako tresna da euskera eta hori ulertarazi behar diegu”.

Petra Elserentzat *“ez da bata ala bestea. Bigarren belaunaldia agian ez da etorkina sentitzen. Eta 20 urteko bat agian beste 40 urte biziko da gure artean. Egunero etortzen da jende berria. Euskal komunitateak zer egingo du? Etsi? Euskalgintza klase ertainetik gorakoei zuzentzen zaie, eta migratzaileak langile klasekoak dira orohar. Garrantzi-*

tsua da helduen hezkuntzan, EPAn eta Lanbide Heziketan esaterako, euskerari benetako garrantzia ematea, hemengo bizitza elebiduna egiteko. Hizkuntza lanbide-pres-takuntzan integratu behar da”.

“EUSKERAREN MARKA ETA HERRI-GINTZA” mahai-inguruan **Jon Maia** (bertsolaria), **Joxe Mari Agirretxe “Porrotx”** (pailazoa eta hezitzailea) eta **Zalao Urain** (musikaria eta irakaslea) izan genituen hizlari, **Estitxu Garaien** gidaritzapean (Gizarte eta Komunikazio Zientziak EHU).

Euskeraren markari buruz dihardugunean, euskerari lotuta bururatzten zaizkigun asoziazioei buruz ari garela azaldu zuen Estitxu Garaik.

Zalao Urainentzat euskara ama hizkuntza da eta *“sentitzen dut nirekin bihotzean barru-barruan dagoen zerbait dela. Tresna bat ere bada. Eta nire izakeraren parte bat. Emakumea, musikaria eta euskalduna sentitzen naiz. Euskeraz pentsatzen dut eta amesten dut”*.

Zalao Urainen ustez, erronka handiak ditugu aurrean, baina lan egin beharra daukagu. *“Daukaguna aprobetxatu egin behar du gu eta alde positiboak ikusi. Euskal Herriko marka hori euskal folkloreari, bertsoari... lotuta ikusten da, ez zaizkigu raperoak edo rockeroak burura etortzen. Gazteen gertuko gauzak egin behar dira. Egon badaude, baina ez ditugu ikustarazten, eta emakumeak are gutxiago”*. Euskerak erakargarria izan



Gero eta gehiago nabaritzen dugu zure falta.

Zure arreba

MUTXI

Juan Ignacio Urresti

bere heriotzaren bigarren urteurrenean.

2018ko martxoaren 22a





Zaloa Urain, Jon Maia, Jose Mari Agirretxe Porrotxe eta Estitxu Garai.



Ekhi Belar, Estibaliz Alkorta, Garbiñe Mendizabal, Patxi Lejardi eta Junkal Txurruka.



beharko lukeela uste du Zaloak, "adin desberdinetako jendearentzat erakar-garria" eta "zailtasunak zailtasun, ez dugu ahaztu behar aurrera jarraitu behar dugula".

Jose Mari Agirretxe Porrotxe-en esanetan, "batzuentzat negatiboa dena besteentzat positiboa da. Txikitasuna ez da oztopo bat. Horrek ematen digu enpatia bat, begirada bat munduarekiko. Euskerak munduaren begirada propioa dauka eta horrek egiten gaitu eder. Proiektuak egiteko eta elkarrekin bizitzeko aukerak ematen dizkigu".

Zer egin dezakegu euskeraren marka hobetzeko galderari erantzun zioten solaskideek. Porrotxe-en ustez "denok gara hezitzaileak; eta administrazioak, herritarrak eta hezkuntza munduak elkarlanean jardun behar dugu, haurrak erdigunean jarriz. Eurenzatzat egiten dena denontzat izango da. Gobernantza modu berri bat behar dugu, komunitatetik abiatuta". Elkarlanaz gain, koerentziaren beharra azpimarratu du Porrotxek, "alferrik egingo ditugu gauzak, gero El Conquis erderaz egiten badugu".

Jon Maiaren ustez, "Arazoa daukagu. Euskal Herria esaten dugunean ez gara oso kontziente zertaz ari garen. Bertakoak esaten dugunean uste dugu gu garela, baina ez da horrela. Askok ez dakite ezer gutaz. EHren hiru laurdenentzat euskera fosil bat da, nerabezeroan inposatutako zerbait. De-

seroso sentitzen dira gazte asko, ondo dominatzen ez duten hizkuntza baten ikasi behar dutelako. Oso teoria abangoardistekin ari gara batzuetan, baina errealistak izan behar dugu".

Euskal Herrian bi mundu ditugula adierazi zuen Jon Maiak, "euskalduna eta erdalduna. Erdalduntasun horretan euskeraren debatetik urrun daude. Gehienak eskerrenekoak dira, baina euskalduntasunetik kanpo bizi dira. Ez dugu elkar ezagutza prozesurik egin eta horrek estereotipoak, mamuak eta aurreiritziak desmontatuko lituzke. Elkar ezagutzeaz gain, pedagogia eta legegria ausarta behar dira".

"DATOZEN URTEETARAKO ERRONKAK, ERAKUNDEEN ARTEKO ELKARLANA"

izan da azken mahai-ingurua. Bertan izan ziren: **Estibaliz Alkorta** (Euskara Sustatzeko zuzendaria. Eusko Jaurlaritzaz); **Garbiñe Mendizabal** (Hizkuntza Berritasuneko zuzendaria. GFA); **Patxi Lejardi** (Eibarko Udaleko Euskara eta Kultura zinegotzia) eta **Junkal Txurruka** (Eibarko Udaleko Euskara teknikaria). Moderatzailea **Ekhi Belar** kazetaria (...eta kitto!) izan zen.

Erakundeen arteko harremanak eta koordinazioa sendotzea beharrezkoa dela uste dute, nazio zein udal mailan. Eta adostasun politiko batera iritsiko balira hortik gora erakitzea errezagoa litzakeela aipatu zuten.

Bestalde, fokoa eragileengan jarri behar dela uste dute, "eragile horiek nola aktibat



eta nola saretu, hor dago gakoa". Euskeraren biziberritzea denon lanarekin etorriko dela azpimarratu zuten behin eta berriro, eta filosofia horretatik abiatuta hainbat ekimen arrakastatsu lortu direla aipatu zuten, Euskalaldia edo euskal hedabideen sektorearekin lortutako hitzarmen sendoa, esaterako. Esan zutenez, ikusarazi beharra dago transmisioaren arduraz guztia ezin dela hezkuntza sistemaren esku utzi. Gauzak ezin direla bakarrik egin aitortu zuten, "denon beharra daukagu".

Berrikuntza, ausardia, gauza berriak probatzea... euskeraren biziberritzean ezinbestekotzat jo zuten.

Horrela amaitu zen X. mintegia. Hurrengo urtean ere ederra eta oparoa izango delaren esperantzarekin eta aurtengoa berezia egiten lagundu duten pertsona guztiei eskerrik ematen: Nerea Ariznabarreta (Matriuska), Koldo Carranza (grabaketa), Juan Luis V. Fraguas eta Manolo Murillo (teknikariak), Juanma Vazquez (eskaparartista) eta ...eta kitto!ko lantalde osoari.

JOSE SARASUA ZABALA

(2020ko martxoaren 3an hil zen)



FAMILIAREN IZENEAN, ESKERRIK BEROENA gure nahigabeen lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.





Aldarrikapen moreak hartu zituen kaleak

Domekan, Emakumeen Nazioarteko egunean, borroka feministarako deiak ehunka lagun atera zituen Eibarko kaleetara. Goizean zein arratsaldean egin ziren ekimenak: elkargunea, mintzodromoa, "Emakumeak" dantzara! ekitaldia. poteo girotua, bazkaria, bazkaloste musikatua eta manifestazioa. Emakumeen Egunaren harira antolatutako jarduerak, baina, ez dira Martxoaren 8ra mugatuko: besteak beste, barixakuan hainbat dantza eskaini zituzten Neledantza taldekoek Astelena frontoian eta Arrate Kultur Elkartean, berriz, bertso-afaria egin zuten. Ekitaldi hauetan egindako argazkiak gure web orrian aurkituko dituzue, www.etakitto.eus/mediateka atalean. **ARGAZKILARIA: MALEN JAINAGA**



Barixakuan bertso-afaria egin zuten Kulturealean.



Dantza-saioa izan zen Astelena frontoian.

KORONABIRUSARI BELDURRA?

Lasai, autoa doan* desinfektatuko dizugu

Koronavirusarekin eta zure autoaren esterilizazioarekin kezkatuta bazaude,
ZURETZAT KONPONBIDEA DAUKAGU:

*Garbiboxen zure automobilaren garbiketa osoa egiten baduzu, desinfekzioa doan.

Koronavirusarekin kutsatzeko beldurra gero eta handiagoa da herritarren artean, are gehiago Espainian eta Euskal Autonomia Erkidegoan hainbat kasu konfirmatu direnetik. Administrazioak kutsatzea saihesteko eman dituen aholkuen arabera, **arreta berezia jarri behar zaie higieena zaintzeko neurriei**, horiek sekula baino gehiago zainduta. Ohartarazi dutenez, **autoan airean dauden partikula eta**

germen ugari pilatzen dira eta, beraz, kutsatzeko arrisku handia dago. Pilaketa hori, gainera, tapizerian ez ezik, alfombretan eta aireztapen konduktuetan ere gertatzen da. Eta aipatutako horiekin batera, ezin dugu ahaztu automobilen barrualdeak itxita egoten direla luzaroan, aireztatu gabe. Beraz, horiek guztiak batuz gero, auto barruan koronavirusa metatzeko arriskua nahiko handia da. Kutsatzeko beldur guztiak uxatzeko,


baina, autoaren higienizazio eta **garbiketa berezia eskaintzen dizugu Garbiboxen**, doan: "Ozono sortzaileak erabiltzen ditugu, eragin mikrobizida, oxigenatzailea eta desodorantea dituztelako. Izan ere, ozonoa agente kutsakorrek ezabatzen dituzten gasik eraginkorra da, bakterizida, birizida eta fungizida delako. Beraz, bakterio eta birusei, Covid-19 eta amiantoa barne, eusteko primerako hesia da".



**7 urte
zuekin
ESKERRIK ASKO GUZTIOI**



AUTO-GARBIKETA
Maila guztietako
garbiketa eta konponketak:
tapizeriak, sofak...
Leunketak:
fokoak, karrozeria...
Umearen
karro-garbiketa



garbibox
eco auto-garbiketak
limpieza-vehículos

Urtzi Antxustegi (688 649 837)
09:30 – 20:00

**AUTO
GARBIKETAK**



Ego Gain, 7
El Corte Inglés

**ETXERA
ZERBITZUA**

*imanol magro*

Enpresa pribatuak balore eta helburu batzuk ditu, erabat zilegi direnak, eta ez dira demonizatu behar, baina ez dute guztirako balio

Pribatua? Ez, eskerrik asko

Hasi aurretik, oharra: nik ere Eitzagako zabor luiziaz hitz egingo dut. Dagoeneko gaiak nekatzen bazaitu, irakurle pasatu lasai hurrengo orrialdera. Izan ere, gertaturikoaren larritasunak hausnarketara eraman nau, eta hondamendiaren arrazoiengan pentsatu dut. Arrazoi ekonomikoek ari naiz, eta nire ondorioa hurrengo da: diruak eragin zuen luizia, eta diru goseak irentsi zituen Alberto Sololuze eta Joaquin Beltran. Demagogiaz haratago argudiatuko dut. Kudeaketa pribatua publikoa baino hobea dela sinestarazten digute, baina Eitzagako kasuak garbi erakusten du bizitzarako oinarrikoak diren jardunak ezin direla esku pribatuetan utzi. Enpresa pribatuak balore eta helburu batzuk ditu, erabat zilegi direnak, eta ez dira demonizatu behar, baina ez dute guztirako balio. Zergatik bestela hainbeste langile eremu publikoan lan egiteko gogoz?

Zabortegeiek publikoak behar dute, kontrol-neurri zorrotzak ziurtatzeko, eta non eraiki ondo erabakitzeko. Pribatutasunak kontrol ezaren atea irekitzen du, azken batean helburua irabazi ekonomikoa baita. Pribatuaren defendatzaileek diote kontrol publikoak zorrotzak badira, pribatua hobea dela, baina esperientziak erakusten digu ziria sartzea ez dela hain zaila. Kasualitatea ere ez da beti herri txikien udal-azpiegitura ahula baliatzea haien lurretan erakitzeke. Beraz, onena kontrolen pausoa saihestea da, eta zuzenean publikoak izatea. Logika hau zabortegeiei aplikatu dakieke, baina baita autobideei, kiroldegiei, ospitaleei ere... Koronabirusa iritsi den honetan sare publikoa hartzen ari da izurritearen ia zama osoa. Gaixo bat hamabost edo berrogei egunez logela bat okupatzen izatea ez da errentagarria.

*olatz etxeberrria*

Komenigarria da teknikari bat beti izatea eraikinetan egiten diren lanak zehazten, zuzendu eta ziurtatzeko; aditu baten eskutik babestuago egongo zarete

Behin haizeak eramandakoa...

Azkenengo haize boladek aldamiok lurrera bota dituzte. Ez da gurean izan, ez: Eibarren ez, baina bai oso gertu. Badirudi hemen gertatzen ez bada ez duela guran eraginik edukiko horrelako gertakizun batek, baina eduki beharko luke, bai horixe. Bada denbora kaleak aldamiok beteta ditugula, eraikinetako fatxadak berrizten dihardugulako, eta teilatuak ere konpontzen ari gara. Lan horietan sarritan gertatzen da, ia beti ez esateagatik, ez dagoela teknikari batek egindako memoria, proiektua edo zuzenketa. Zuzenean bizilagunak izaten dira lanak adosten dituztenak, eta kontratatu eta konpondu egiten dituzte fatxada, teilatu edo behar dena. Horrek ez die babesema ematen bizilagunei, komenigarria da teknikari bat beti izatea eraikinetan egiten diren lanak zehazten, zuzendu eta ziurtatzeko. Zenbat aldamiok egongo dira gure herriko kaleetan teknikari baten zuzenketarik gabe? Zenbat obra dau-

de eraikinetako kanpoko ataletan teknikari baten begirada izan gabe? Jakin behar da eraikinetako kanpoko aldean egiten diren lanek arrisku zuzena sortzen dutela herritarrengan, kalera zerbait jausteko arriskua dagoela. Horregatik izaten da gomendagarria teknikari baten zuzenketa izatea horrelakoetan. Ez badago aditunik obra horietan, nork emango ditu aginduak ezbeharrak gerta ez daitezen? Zelan saihestu daitezke bestela?

Askotan, naiz eta teknikari zuzendari bat izan obran, ezustekoak gerta daitezke; baina argi dago babestuagoa dagoela bai obra, bai eraikina, eta baita herritarrak ere aditu baten begiradapean egiten diren lanekin.

Jakizue bizilagunok zuen erantzukizun zuzena daukazuela eraikinetan egiten diren lanetan eta horien ondorioz gerta daitezkeen kalteetan ere, eta argi dago aditu baten eskutik bazoazte zerbait babestuagoak egongo zaretela.



gazteON



Kirolak gero eta presentzia handiagoa du gure artean. Gazteok, helduek, umeek... gehienok egiten dugu kirol bat edo beste. Betiko jarduera fisikoez gain, praktika berriak ere indarra hartzen ari dira azken aldian, eta horiekin batera, kirol horiek praktikatzeko guneak.

Gazte jendeak martxan jarritako horietako batzuetara jo dugu: Eibar Sasoian, Ugan Klub, Crossfit Arrasate eta Ronin Club. Haien bidez gertutik ezagutu dugu joera berriak zein diren, zein profiletako jendea hurbiltzen den euren zentroetara, zein helbururekin...

Kirola ogibide

Egilea: Malen Illarramendi Beitia

Zer diote mahai-inguruko kideek?



“Gauza guztiak bere neurrian eginez gero, uste dut noizbehinka parrandak botatzea ez dela txarra. Bateragarriak ikusten ditut kirola egin eta bizitza osasuntsua eramatea eta noizbehinkako parrandak”

CrossFit Arrasate

Laura Ruiz



“Nik uste dut sare sozialen munduak eta posturoaren munduak eragin handia daukala gazteak kirola egitearekin. Garrantzitsuenak da egiten duzun kirolarekin ondo sentitze”

Eibar Sasoian (Fit Corpore)

Aitziber Urkiola



“Orain dela urte batzuk arte martzial mixtoak aipatuz gero, ez zegoen batere ondo ikusita. Gaur egun, ordea, gizartean onartua dago, eta komunikabideetan ere ikusi daiteke”

Ronin Fight Club

Ian Exposito



“Gizarte honek duen arazo handienetarikoa bat loditasuna da. Ohiturak aldatu egin dira: pantailen aurrean inaktiboak bihurtzen gara, elikadura ez da zaintzen... Pertsonen osasunarengan influentzia handiagoa du norberaren posta kodeak, genetikak baino”

Ugan Klub

Iñaki Ugarteburu

Gauza jakina da kirolak onura ugari dakarziola praktikatzen duenari, bai fisikoki, bai mentalki, eta horrek ongizateari zuzenean eragiten diola. Hain zuzen ere, horixe da gurekin egon diren zentroetako ordezkariak aipatzen dutena, bezeroen ongizatea baitute oinarri eta helburu, eta, hori lortzera begirako kirol-jarduerak eskaintzen dituzte. Urte gutxitan, gainera, gero eta kirola egiteko aukera handiagoak ditugu gure herrian zein ingurukoetan; izan ere, kirol-zentroak nabarmen ugartu dira azkenaldian, eta gazte askok ere bide horretatik jo dute negozioa irekitzeko orduan.

Kirolak euren bizitzan duen garrantziaz baliatuta, zaletasuna eta lanbidea uztartu nahi izan dituztela diote denek aho batez, eta, kirolarekin eta osasunarekin lotutako zerbitzuak eskaini nahi dituztela, bezeroen bizitza-kalitatea hobetze aldera. Ongi ezagutzen dituzte pertsonalki kirola praktikatzearen onurak (deskonezioa, erlaxazioa, gozamina, asebetetzea...) eta jendeari ere horretaz disfrutatzeko aukera zabaltzea nahi diote. Asko dira euren zentroetan praktikatu daitezkeen jarduerak: spinning-a, crossfit-a, dantzarekin lotutako aktibitateak (zumba, aerobika...), arte martzialak, gimnasia...

Argi dute, halere, kirola egiteko ez dela gimnasio edo ongizate zentrorik behar, nahikoa dela gogoia edukitzea eta disziplinatua izatea, baina ezaugarri horiek betetzen ez dituenak horrelako zentro batean aurkituko ditu gidaritza eta motibazioa.

Kirola moda den galdetzen zaizenean, denek diote hortik harago doala. Moda kontua praktikatzen diren aktibitateak izan daitezke, baina kirolaren funtsa nahiko errotuta omen dago. Horren harira, Eibar Sasoian ongizate zentrorako ordezkariak, Aitziber Urkiolak, honela dio: “Ohiturak dira aldatu direnak, baina,

oro har, barneratuta daukagu osasuntsu bizi gaitezen, kirolak lekua behar duela egunerokotasunean, eta hori da garrantzitsuenaren. Nork bere gustuko kirola aurkitzean dago gakoa, beraz, denetarik probatu eta bakoitzaren gustu, ezaugarri eta helburuetara ondoen egokitzen dena aukeratzean dago arrakastaren gakoa.

Ugan Klubeko Iñaki Ugarteburuk dioskunez, "Gauzak azkar aldatzen dira. Duela 30 urte, gutxi batzuek (gizonek, batik bat) egiten zuten kirola; gauza marginala zen, nolabait esateko. Kiroldegiei esker, demokratizatu egin zen kirola, eta jende askorengana iritsi" Zabalkunde horretan, emakumezkoek ere jauzi egin dute kirolera, eta edozein modalita-

tetan aritzen dira gaur egun, nahiz eta oraindik zenbaitetan gutxiago diren, esaterako, arte martzialetan. Disziplina horretako Ronin klubeko lan Expositok dio oraindik ere emakumeak heren bat direla euren elkartean, baina lan handia egiten ari direla gehiago izan daitezten.

Bestalde, globalizazioaren eragina kirolera ere iritsi da, Laura Julian CrossFit Arrasatekoaren esanetan. Esaterako, eurek zabaldu berri duten gimnasioan Estatu Batuetatik datorren modalitatean oinarritzen dira, crossfit-ean, duela gutxi arte, gurean guztiz ezezaguna zena.

Bada kirola "gorputzari kultura" esaten zaionagatik egiten duenik, baita sare sozialetan erakustearen

beharrak ari denik ere, baina zentro hauetakoek aho batez diote gutxienekoak direla; are gehiago, gazteen artean ere kirolaren onuren gaineko kontzientzia gero eta handiagoa dela, eta itxuragatik ez ezik, osasunagatik ere egiten dutela. Elikadura eta kirola elkarren eskutik doazela ere gero eta barneratuago dugu, izan ere, alperrikakoa da kirola egitea elikadura-ohiturak zaindu ezean. Oreka da bilatu beharrekoa, aldian aldiko "pekatuak" edo gehiegikeriak egin daitezke, bai elikagaiekin, bai alkoholarekin, baina garbi izanda oinarria zein izan behar den. Heziketa kontua denez, txiki-txikitatik erakutsi behar zaie haurrei zein den osasuntsu bizitzeko bidea.

| ADIN TARTEAK | | JARDUERA FISIKORAKO GOMENDIOAK | OHARRAK | SENDERISMOA GUTXITU | PANTAILA AURREKO DENBORA MUGATU |
|-----------------------------------|----------------------|--|---|---|--|
| 5 urtetik beherakoak | Oinez ez dabiltzanak | Egunean hainbat aldiz. Edozein intentsitate. | | Esna daudenean, eserita ematen duten denbora gutxitu. Orubete jarraian baino gutxiago. | 2 urtetik beherakoak: ez da gomendatzen pantaila aurrean egotea. 2 urtetik 4 urtera bitartekoak: egunean ordu bete baino gutxiago egon beharko lukete pantaila aurrean. |
| | Oinez dabiltzanak | Egunean 180 minutu gutxienez. Edozein intentsitate. | | | |
| 5 urtetik 17ra bitartekoak | | Egunean 60 minutu gutxienez. Neurritzko intentsitate indartsua. | Astean hirutan, gutxienez, giharrak eta hezur-masa indartzeko jarduerak indartsuak egin. | Tarte sedentario luzeak murriztu. Garraio aktiboa eta aire libreko jarduerak bultzatu. | Aisialdia betetzeko pantailaren erabilera mugatu, asko jota, egunean 2 ordura. |
| Pertsona helduak | | Astean 150 minutu gutxienez, neurritzko jarduera, edo astean 75 minutuko jarduera indartsua edo aurreko bien arteko konbinazioa. Gomendio hauek 10 minutuko jarraiko tarreak pilotuta lor daitezke. | Astean bitan, gutxienez, giharrak hezur-masa eta malgutasuna hobetzeko jarduerak egin. 65 urtetik gorakoek, mugikortasun-arazoak dituztenek, gehienbat, astean hirutan, giharrak indartzeko eta oreka hobetzeko jarduerak egin. | 2 ordu baino gehiagoko tarte sedentario guztiak murriztu. Atsedan aktiboak eginez ordu betean behin edo bi ordutik behin luzaketa saio motzak eginez edo paseoak emanez. Garraio aktiboa bultzatu. | Pantaila aurreko denbora mugatu. |

Zein aholku eman dituzte?

Aitzakiak alde batera utzi

Benetan gustatzen zaizun zerbaitetan hastea komeni da, eta lagunartean bada, hobe, entretenigarriagoa delako. Denbora faltaren aitzakiak alde batera utzi. Astean 2-3 ordu edonork atera ditzake; telesail gustokoaren kapitulu bat gutxiago ikustearekin, adibidez.

Laura Ruiz

Antolaketa egokia da gakoa

Ondo sentiarazten zaituen kirola aurkitzea da gakoa. Denbora falta, lana, umeak, errekauek... ez dira aitzakiak. Ondo antolatuz gero, tarteak atera daitezke. Edozein da kapaza, eta animatu egin behar gara.

Gauza barriei beldurrik ez, probatu egin behar dira

Gauza barriak probatu egin behar dira, eta gorputza astindu egin behar da. Hori ez ezik, burua ere astintzea ezinbestekoa da.

Ian Exposito

Aitziber Urkiola

Garrantzitsuena kirolarekin disfrutatzea da

Norberak hoberen datorkion jarduera topatu behar du, eta batez ere, disfrutatu. Alhokua hau da: 6-17 urte bitartekoek gutxienez egunero ordubeteko saioak egin, eta 17tik aurrerakoek, gutxienez astean 150 minutu, baina gehiago bada, hobe.

Iñaki Ugarteburu

Podcast-a entzun nahi?

Sartu zaitez **etakitto.eus** web orrian, eta bertan aurkituko duzu mahai-inguru honen grabazioa.



Kirola ogibide

Mahai-inguru honen **podcast** edo audio-grabazioa **Spotify**n eta **iVoox**en entzun eta deskargatu daitezke. Plataforma horietan gazteON izenarekin aurkituko gaituzu. Oso modu errazean!



Spotify



iVoox

Ateak itxita jokatzek Eibar FT-ren egoera larriagotu dezake sailkapenean

Ez da zorteko foballeko gure herriko lehen taldea. Lau egunetan bigarren porrota jaso du Ipuruan (lehenengoa zapatu eguerdian Mallorca aurkari zuzenarekin galduta eta bigarrena martitzenean Realaren aurka emaitza berarekin amaitu zen partiduan). Une honetan jaitsiera postuak bi puntura dituzte eibartarrek, justu gaur Madrillgo Santiago Bernabeun Real Madrid handiari aurre egin beharko diotenean, 21:00etatik aurrera.



Partidu hori ere badirudi ateak itxita jokatu beharko dutela: espero dezagun hori behintzat kalterako ez izatea Mendilibarren mutilentzat. Mailako kaltetuenetakoa izan daitekeelako Eibar, Athletic-en aurka Ipuruan jokatu beharreko hurrengoa ere egoera berean jokatu beharko dutelako seguruenik (**bertan behera geratu daitezke, azken orduaren zain**).

Eibar FT-ko zuzendaritza taldeak, bestalde, Realaren eta Athletic-en aurkako partiduetako kuotak itzuliko dizkie abonatuak, Ipuruan jokatu beharreko bi partidu horiek ateak itxita jokatzena behartu baitio Kirol Kontseilu Nagusiak. Sarrera fisikoa hartu zutenen kasuan, diru hori itzuliko zaie klubeko bulegoetan datorren asteko eguaztenera arte, honako ordutegian: 09:30-13:30 eta 15:30-19:00.

Erregionaleko igoera faseko herriko taldeak liderren aurka

Bai Urkik eta baita Eibartarrak-ek ere, biek euren multzoetako liderrei egin beharko diete aurre asteburu honetan. Maila igotzeko fase horretan Urkik hobeto ditu gauzak, sailkapenean bigarren delako: azken jardunaldian 1-4 irabazi zuen Bergaran (Arroita, San Martin, Garcia eta Recioaren golekina) eta orain Pasaia liderra hartuko du Unben, oso partidu garrantzitsuan, puntu bateko aldeko baitago bien artean. Eibartarrak taldeak gauzak zailago ditu aurreko asteburuan Unben Zestoarekin 0-1 galduta eta gero; orain, gainera, Usurbil liderra bisitatu beharko du. Neurketa zaila, baina ezustea emateko prest daude eibartarrak (**bertan behera geratu daitezke**).



Eneko Agirretxe irabazlea Floreagan.

Azkoitiarrak nagusi 51. Gipuzkoako hiru-txirlo txapelketaren hasieran

Aurreko zapatuan Azkoitiko Floreagan jokatutako lehen jardunaldian Eneko Agirretxe bolatoki horretako ordezkaria nagusitu zen, bera izan baitzen bakarra sei txirloak botatzen. Bostekin sailkatu ziren jarraian Gorka Etxaniz taldekidea, Mateo Guenaga Lasturreko markinarra eta Xabier Arrizabalaga San Miguelekoa, Asola Berriko Iñaki Gojenola eta Sergio Rodriguezekin batera. Guztira 70 bolarik hartu zuten parte. Bigarren jaurtialdia bihar izango da, 17:00etan hasita, Azpeitiko Garmendipe bolatokian.



- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73



LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

Radio Eibar



104,0 FM



Funeraria-Ehortzetxe
Mugica

| | |
|--|--|
| EIBAR  | ELGOIBAR  |
| Beilatokia Funeuskadi Eibar: Otaola, 27 | Beilatokia: SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan) |



Bulegoa Eibarko erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra

☎ **943 20 19 51** www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea



Probetxuzko asteburua herriko errugbi talde nagusientzat

Talde biek beharrezko zituzten garaipenak lortu zituzten; hala ere, horren jarraipena beharko dute euren helburuak eskuratzeko. Emakumezkoen taldea Ohorezko B Mailan partidurik galdu ez duen talde bakarra bilakatuta, orain maila igotzeko borrokan laugarren sailkatutako Sant Cugat-en aurkako finalerdia prestatu beharko du. Ligako azken jardunaldian lidergoa zen jokoan eta eibartarrek ondo erantzun zioten Valentzian Les Abellesek sortutako eragozpeni: lehen zatia 24na berdinduta amaitu zuten, baina bigarrenean Aviakoek euren indarra erakutsi zuten, azkenean 29-

45 irabazteko. Gizonezkoen taldeak partidu erabakigarria zuen Asturiaseko hiriburuan eta, ondo kostatu bazitzaie ere, Gaston Ibarbururen mutilek 17-19 aurrrera atera zuten Oviedoren aurkako norgehiagoka. Orain hemendik zortzira Unben Vigoren aurkako partidua dute zain. Ligako azkena izango da eta mailari eustea jokoan izango dute; hortik zaletuen animoek izan dezaketen eragina zirt edo zart egin beharreko partidu ezin interesgarriagoan. Eibartarrek sailkapenean berdinduta dagoen Gaztedik, bestalde, Zarautzen jokatu beharko du Babyauto-aren aurka.



Aviakoek borrokatu behar izan zuten irabazteko.



Klub Deportiboko atletak bikain Espainiako Sub-18 txapelketan

Eibarko Klub Deportiboko bi ordezkari izan ziren Valentzian jokaturako 18 urtetik beherako Espainiako atletismo txapelketan, eta emaitza paregabeak lortu zituzten: Eneko Larreak urrezko domina eskuratu zuen altueran, 1'97ko jauziarekin, eta Nora Zabala zortzigarren postuan sailkatu zen, luzera jauzian 5'51 metroekin bere markarik onena berdinduta; azken horrek 11'21 metroko marka egin zuen jauzi hirukoitzean, 13. postuan sailkatuta. Bestalde, Motrilen jokaturako jaurtiketetako maila absolutuko Espainiako txapelketan Odei Jainaga eibartarrak brontzezko domina eskuratu zuen jabalinarrekin. Quijera anai nafarrek hartu zioten aurrea: Manuk 79,70 metrora jaurti zuen eta Nicolas 76,31ra heldu zen. Eibartarren jaurtiketa onena 75,03 metrokoa izan zen.

Eibarko xakelariak maila onean Gipuzkoako eskolarteko txapelketan

Azken bi domeketan Klub Deportiboko lokaletan jokaturako Gipuzkoako eskolarteko txapelketaren zonaldeko lehian, hamasei xakelarik hartu zuten parte, hiru mailatan banatuta. Eta Deporrek Gipuzkoako Xake Federazioarekin elkarlanean antolatutako partidetan eibartarrek bikain jardun zuten, eta La Salle ikastetxeko bi ordezkari onenak izan ziren euren mailatan: Aimar Garcia alebinetan eta Endika Garzia benjaminetan. Intza Fernandez eibartarra, bestalde, bigarren izan zen infantiletan eta J.A. Mogel ikastolako Xuban Varona hirugarren sailkatu zen alebinetan.



Debabarrenako Aitor Larrañaga garaipenaren bila Zumaiako esprintean

Eibar Energia Hiria taldeko txirrindularia bosgarren sailkatu zen Urretxun jokaturako Goierriko Itzulian. 23 urtetik azpikoentzako lasterketan 34 txirrindulariren taldea aur-



keztu zen helmugan eta, euren artean jokaturako esprintean, Baqué taldeko Jon Barrenetxea nagusitu zen, Laboral Kutxako Unai Iribar eta Lizarteko Raul Garcaren aurretik. Eguneko ihesaldian hamar txirrindulari izan ziren, tartean Eibarko taldeko Manex Alkorta. Hor lortutako puntuekin Larrañaga 12. postuan kokatzen da Lehendakari Txapelketan.

Eibarko Duatloia 29. edizioa jokatu da bihar, 200 atletakin

Arratsaldeko 16:45ean hasiko da sprint distantzian jokatu den gure herriko duatloia eta 18:30ak bueltan amaituko da. Eibarko Triatloi Taldeak antolatutako lasterketak 25 kilometro eta erdi izango ditu, eurretako 18 bizikleta gainean egitekoak eta beste zazpi eta erdiak antxixketan: bost hasieran eta beste bi eta erdi bizikletan egindako tartearen ondoren, duatloia amaitzeko. Antxixketan egiteko zirkuitoari lau itzuli emango diete partehartzaileek hasieran, jarraian bizikleta gainean bariante berritik pasatuko dira Sallobenteko errotondaraino joateko eta, aipatutako 18 kilometro horiek eginda, ha-



sierako zirkuitoari beste bi itzuli emango diote helmugaratu aurretik.

Boxeak Untzaga plazan kokatu dituzte, aurreko urteotan bezala, eta hainbat sari banatu dira: podiumera igoko diren absolutu mailetak hiru lehenengoekin batera, 23 urtetik azpiko garaileek eta junior eta kadete mailakoek ere jasoko dituzte eurei dagozkienak. Aurrekoek gain, taldeko sailkapenetako irabazleek ere izango dituzte sariak, hor berritasun batekin: gizonzkoen eta emakumezkoen mailetakok jasotakoetatik aparte, talde mistoendako ere izango baita, lau onenen denborak kontuan hartuta.

Aire pixka bat hartzeko bi puntu lortu zituen Somosek Zaragozan

Dominicos talde aragoiarrari 25-27 irabazita, Eibarko taldeak hurrengo denboraldian 1. Nazional Mailan jarraitzeko beharrezkoak izan daitezkeen bi puntu interesgarri irabazi zituen, sailkapenean Zaragozakoekin berdintzeko. Orain Egia sailkapeneko azkenaurrekoa lau puntura dute, justu asteburu honetan Trapagaran liderra hartu behar dutenean lporuan. Ander de Diegok partidua bikaina jokatu zuen eta berarenak izan ziren taldeak lortutako gol guztien ia erdia, 13 sartu baitzituen.

Harrobiari dagokionez, asteburu "zoragarria" izan zen Eibar Eskubaloiko infantil taldeentzat, bai Urkotronikek eta baita Grupo Mecalbek ere Gipuzkoako txapelketako finalerdietarako txartela bereganatu zutelako, bien kasuan kanpoan lortutako garaipenei esker: Saieko La Salleri 13-21 irabazi zieten lehenengoek eta 16-18 Ereintza Aguaplast



taldeari bigarrenen. Nesken garaipenekin batera, mutilen Hierros Servandok 22na berdindu zuten eta lider jarraitzen du, partidurik galdu gabe. Seniorretan, azkenik, Gipuzkoako 1. Mailan jokatzen duten talde biek irabazi zuten: emakumeek 22-26 Munttarperi eta gizonzkoek 26-25 lporuan.



Astelenako jaialdia enpresen eta ETB-ren erabakiaren zain

Domekan pilotaren Katedralean jokatzen zen jaialdia zalantzan zen komunikabide hau inprentara bidaltzerakoan. Eguaztenean enpresetako arduradunak eta ETBko agintariak bilduta egon eta gero, eguen goizean oraindik ez zuten erabakirik hartu. Karteldegia honako partiduek osatuko lukete: Elezkano II/Bikuña vs Salaberria/Rezusta; Olaizola II/Urrutikoetxea vs Ezkurdia/Martija eta Agirre/Eskiroz vs Elordi/O. Etxebarria. Zalantzan dago ateak itxita jokatu edo hainbat aste atzeratu.

Bidasoa Urbat baino gehiago izan zen Orbea igerilekuan

Waterpoloko senior mailako emakumezkoen taldeak lehenengo partzalean galdu zuen irundarren arteko partidua, horko 1-5ekoak markatu zuelako azken emaitza. Neurketa 6-8 amaitu zen, baina hurrengo partzalean eibartarrek ondo erakutsi zuten beste egun baten Bidasoari irabazteko gai direla; hala ere, bigarren dira sailkapenean. Gizonezkoen taldeak, bestalde, sendo jarraitzen du lidergoan eta, Iruñean jokatutako norgehiagokan, 4-23 irabazi zion Larrainari, Ortiz de Zarate bikien prestazio ezin hobearrekin. Jubenil mailako taldeak 15-10 irabazi zion Portugaleteko Nauticari eta, infantil mistoetan, Urbatekoak 4-21 nagusitu ziren Leioan. Alebin mailako taldeak, bestalde, Lautadako bi taldeei irabazi zien arazorik gabe Eskola Ligan: Lautada A-ri 5-1 eta Lautada B-ri 6-0.



Alpeetan, Italia eta Suitza artean dagoen mendi ikonikoa da Cervino (Matterhorn alemanez). 4.478 metroko garaierarekin, mendizale askok begiz jota duen gailurra da, baita eibartarrek ere. Egoitz Elduayenek eta Kepa Olabek iaz igo zuten. Egoitzek irudiak grabatu zituen eta, hortik abiatuta, Cervino mendiaren eta hara joan diren eibartarren istorioak batu ditu 'Eibartarrak Cervinon' lanean. Martitzenean emango dute, 19:00etan, Portalean. Sorpresak eta solasaldia (Pedro Agirregomezkorta 'Petrus', Fernando Recalde...) egongo direla aurreratu digu Egoitzek.



EGOITZ ELDUAYEN (mendizalea):

“Mendian sortzen den adiskidantza da garrantzitsuen”

- Zer jaso duzu 'Eibartarrak Cervinon' lanean?

Cervino oso mendi berezia da, ederra. Mendizaleoi asko erakartzen digu eta askorentzat helburua da hura igotzea. Kepa Olabe eta biok urrian igo genuen. Urteak daromatzat igoerak bidez grabatzen, baina orain asko zaintzen dut grabazioa, eta dronea eta kalitatezko kamera erabiltzen ditut. Hala ere, irudiak niretzat gordetzen ditut (Facebooken sartzeko, lagunei pasatzeko...), beste barik. Orduan, Jon Aristi Deporreko Mendi Batzordeko presidentek esan zidan, Cervino igo nuela eta, jendaurrean aurkezteko zerbait egiteko, eta horrela sortu dut 'Eibartarrak Cervinon'. Hiru zatitan banatu dut lana. Batetik, Cervino mendiaren historia kontatzen dut. Demaseko historia du. Britaniarren, suitzarren eta italiarren artean borroka handiak egon ziren mendia igotzen lehena zein izan zen zehazteko, heriotzak egon ziren... epikoa izan zen. Bestetik, Cervino igo duten eibartarren testigantzak jaso ditut. Juan San Martin, Eli Ojanguren, Julio Llanos, Pedro Agirregomezkorta 'Petrus', Fernando Recalde... Eibartarren artean ere desadostasunak daude Cervino igo zuen lehen eibartarra zein izan zen zehazteko orduan. Eta azkenik, Kepa eta bion igoera kontatzen dugu.

- Nolako igoera izan zen Kepa eta zuretzat?

Orain dela bi urte beste bi lagunekin joan nintzen, baina eguraldiaren eta nekearen ondorioz (beste mendi batzuk igo genituen aurretik) ez ginen igo. Konturatu nintzen ez zela hirunaka igotzeko mendi bat, hobe zela binaka igotzea. Azken urteotan Keparekin asko eskalatu dut eta Cervino igotzeko hel-

burua jarri genion geure buruari. Cervino igotzeko bi bide daude: Suitzakoa eta Italiakoa. Suitzakoa da bide normala, errazena, eta hortik igotzen dira gehienak. Guk, ordea, Italiako aldetik igo genuen. Asko eskalatu behar da eta igoera luzea da.

- Ordu asko irauten duten igoeretan zer pasatzen zaizu burutik?

Bidean gozatu egiten dut. Mendiak jais-tea ez zait gustatzen, baina igotzea bai. Batzuetan sufritu egiten dut, nekatuta noa, baina Keparekin beti brometan gabil-tza. Mendiak igotzerakoan oso ondo pentsatzen da. Askotan joaten naiz bakarrik mendira, baita lotara ere, eta ondo etortzen zait burua ordenatzeko.

- Gailurra albo batera utzita, bidea egitea da garrantzitsuen?

Mendian, sortzen den adiskidantza da garrantzitsuen niretzat. Asko baloratzen dut hori.

- Nolako eskalatzaile komunitatea dago Eibarren?

Eibarko eskalatzaile komunitateak sasoi ona bizi du. Rokodromo berria dugu eta oso ondo dago eskalatzen hasi nahi dutenentzat. Atal batzuk berritu dira, hasiberrientzat egokituz. Bestetik, umeentzako ikastaroak antolatu genituen eta kurtso gehiago ematen hasi gaitzke orain. Nik neuk hainbat gauza erakusten dizkiot talde bati eguaztetenan. Etorri nahi duenak zabalik ditu ateak.

- Baduzu mendi kuttunik?

Alluitz, duda barik. Gainera, orain dela gutxi buzoia jarri nion tontorrean, ez zegoelako. Indalecio Ojangurenen argazki baten ikusi nuen Alluitz tontorrean buzoia egon zela, baina buzoi hori ikusi duen inor ez dut ezagutzen. Beraz, altzairu herdoilgaitzeko buzoi bat egin genuen Elorrioko Gotzonek eta biok, argazkian agertzen den buzoia kopia bat, eta iaz jarri genuen.

- Nola bizi duzu mendian?

Normalean bikotearekin eta alabarekin joaten naiz eskalatzera. Alaba 4 urterekin hasi zen eta orain, 14 urterekin, edozein tokira dator gurekin. Bidaiatzeko toki aproposa da mendia. Goazen tokira goazela mendi batzuk igotzea jartzen dugu helburu, baina aitzakia horrekin inguruak ezagutzen ditugu (herriak, gastronomia...). Gure bizimoduak mendiarekin du zerikusia.

“Desadostasunak daude Cervino igo zuen lehen eibartarra zein izan zen zehazteko orduan”

Juan Vallejo alpinista gasteiztarrak 'Mis montañas' izenburua duen hitzaldia eskainiko du hilaren 26an, 19:00etan, Armeria Eskolan. Bederatzi zortzimilako igota eta 30 espedizio baino gehiagorekin, munduko alpinista handienetakoa da Vallejo. Alberto Iñurrategi eta Mikel Zabalzarekin batera zailtasun handiko bideak jorratu ditu azken urteotan, berarentzat bidez gozatzea delako gauzarik garrantzitsuena.



- Urtebete pasa da Patagonian izan zenuen istriputik (25 metrotik jausi zen). Zer moduz zaude?

Nahiko ondo. Oraindik badut istripuaren arrastoren bat, baina sendatuta nagoela esan daiteke. Hilabeteak daramatzat mendian gauzak egiten eta poliki-poliki normaltasunera itzuliko naiz.

- Horrelako istripu larriek markatu egiten zaituzte edo zuen ibilbidearen parte izango direla onartzen duzue?

Istripuek markatu egiten digute, larriak direnean batez ere. Inoiz izan dudana istripu larriena izan da eta ia urtebete egon naiz ezer egin gabe.

- 'Mis montañas' izeneko hitzaldia eskainiko duzu Armeria Eskolan. Zeintzuk dira zure mendiak?

Munduko edozein mendi da nire mendia. Mendietan egiten den edozein gauza gustatzen zait (eskalatzea, eskiatzea...), nire bizitza mendiaren inguruan mugitzen delako. Mendi jakin batzuen inguruan mintzatuko naiz, baina mendiez inguratuta bizi naiz eta edozein aukeratu ahal izango nuke.

- Zein osagai eduki behar du espedizio batek zuk bat egin dezazun?

Aldi bakoitzean zorrotzagoa bihurtzen zara. Hasieran edozein tokira joaten nin-

JUAN VALLEJO (alpinista):

“Bidaiak merezi izatea bilatzen dut”

tzen, baina urteak aurrera doaz eta urteekin arraroagoa bihurtu naiz (barreak). Orain ez naiz edozein tokira joaten eta proiektua erakargarria, interesgarria eta berria izan behar da niretzat. Ondo pentsatzen dut nora joan aukeratzeko orduan. Bidaiak merezi izatea bilatzen dut.

- Alberto Iñurrategi eta Mikel Zabalzarekin ibili zara espedizioetan azkenaldian. Zergatik eurekin?

Mendia oso antzera ulertzen dugulako. Gauza ezberdinak egitea gustatzen zaizkigu hiruroi: ez zaigu gustatzen mendira material eta baliabide askorekin joatea, bakarrik joatea gustatzen zaigu eta bitarteko gutxirekin eskalatzea. Eskalada minimalistak egitea gustatzen zaigu, motxilan sartzen zaigunarekin helburuak lortzea.

- Hainbatetan esan duzu zure helburua ez dela 14 zortzimilakoak igotzea edo ospea eskuratzea. Azken urteotan alpinismoak hartu duen joera ikusita, joeraren kontra doan mendizalea zara?

Zentzu batean bai. Esan bezala, hasieran edozein tokira zoaz asko pentsatu gabe, baina denborarekin hainbat gauzen inguruan hausnartzen duzu. Azken finean, mendi batera ez zoaz gailurra egitera bakarrik, zerbait gehiago egon behar da.

“Mendi batera ez zoaz gailurra egitera soilik, zerbait gehiago egon behar da”

Mendi polita izan behar da, bide interesgarria izan dezala... Zortzimilakoetan espezializatuko izan banintz, alderdi horrek galduko nituzke eta mendiek zenbat metro neurtzen duten bakarrik ikusiko nuke. 14 zortzimilakoak lortzea erronka polita da, mendi ikaragarriak direlako, baina gaur egun masa-produktua bihurtu da (jende asko dabil, baliabide askorekin...) eta aspalditik ez zait gustatzen alpinismo mota hori.

- Nola moldatzen zarete espedizioetarako finantzazioa lortzeko orduan?

Gero eta zailagoa da dirua lortzea. Orain dela 20 urte alpinismoaren urrezko urteak bizitzeko zortea izan genuen, eta Udalei eta enpresei gure espedizioak erakargarriak iruditzen zitzaizkien. Orain normaltasunera iritsi gara eta zaila da babesleak lortzea. Lehen urtero ikusten genituen euskaldunen espedizioak Himalayan, baina gaur egun zaila da mendi handietara joatea, oso garestia delako. Beraz, gaur egun baimena behar ez den eta urrun egon arren txikiagoak diren mendietara espedizio gehiago egiten dira.

- Zeintzuk dira zure hurrengo erronkak?

Momentuz, ondo sendatu eta sentsazio onak berreskuratzea da nire helburua. Alberto eta Mikelekin harreman estua dut eta eskalatza irteten gara etxean gaudenean. Espedizio berriak egiteko hainbat ideia ditugu eta, batez ere, gogoia. Beraz, gauzak egiten jarraituko dugu, baina ez dakit noiz eta non izango den.





PEDRO ARRIOLA: "Oihana Eibar erdian".

Ludopatiaz jardungo dute "Egun bat" taldekoek martxoaren 28ko bilera informatiboan

Martxoaren 28an San Andres elizako parrokia-etxean bilera informatiboa egingo du 'Egun bat' elkarteak, 18:00etatik aurrera, ludopatiaren gaia jorratzeko. Jokoaren adikzioa borrokatzea helburu duten elkarteetatik diotenez, gero eta gazteago murgiltzen gara jokoan, eta "gertatzen ari den jokoaren normalizazioa oso kezagarria da". 'Egun bat' elkarteak astero bilera bi egiten dituzte Eibarren, eta atea zabalik dituzte jokatzeari lagatzeko nahia dutenentzat eta baita euren familientzat ere.

'Egun bat' taldekoak anonimoak dira, baina taldearen atea zabalik dituzte jokorekin arazoa gainditu nahi duten guztientzat (699377520 telefonora deituta). Elkarteko kide batek esan digunez, "ludopatia ez da bizioa, gaixotasuna da, eta laguntza barik ezin duzu aurrera egin". Anonimotasuna gordetzeko Jon izena jarri diogu gure elkarriketatuari. Jonen gaixotasuna kalbarioa izan da, berarentzat eta bere familiarentzat. 30 urtetan jokoaren morrontzapean bizi izan da. "Orain ez dut jokutzen. baina gaixorik jarraitzen dut. Hau ez delako sekula sendatzen". Baina posible da gertatzea, eta "gaurko egunik txarrena aktibo nengoenean baino askoz hobea da".



Ludopatiaren gaixotasunak, bakarrik jokatu arren, haren familia guztiari eragiten dio.

Familia osoa gaixotzen da

Jonek esan digunez, "sufrimendu handia dago gaixotasunaren atzean. Jokoa obsesio bihurtzen da. Zeure buruan hori besterik ez dago". Gaitz horretatik irtetzeko hondoan jo behar da, eta "ezinbestekoa da zulotik irtetzeko nahia izatea". Gaixotasun hori etxe batean sartzen denean "familia osoa gaixotzen dela" dio Jonek. 'Egun bat' taldeko bilerak hasieran bananduta egiten zituzten, gaixoak alde batetik eta familiakoak bestetik, baina orain etxearekin batera egiten dituzte. "Beste etxeetako esperientziak ikusita, norberaren familia gaixotasuna beste modu batean ikusten hasten da. Eta guretzat, gaixoentzako, laguntza handia da bilera horietan gure taldekideen babesa izatea. Gure etxeak ez dute ulertzen zer gertatzen zaigun, baina beste gaixok bai. Gainera, etxeak aurrean egonda, ezin zara gezurretan ibili".

2017ko azaroan hasi ziren San Andres elizako parrokia-etxean biltzen, baina taldeak hogeitamar urte baino gehiago ditu. Ondarroan jaio zen eta apurka-apurka beste leku batzuetara zabaltzen joan da. Bileretan gertatzen zaienaren berri ematen diote elkarri. "Hemen inork ez zaitu epaitzen, auto-laguntzarako terapia-taldea da. Gu eta gure esperientziak gara, hemen ez dago psikologorik". Martxoaren 28an egingo duten bilera informatiboa irekia izango da. 'Egun bat' elkarteak zer den eta nola funtzionatzen duen azalduko dute, eta esperientzia bat edo beste partekatuko dute.

Taldeak Joni biritza eman dio, "laguntza barik ezin izango duzulako aurrera egin". Aktibo zeuden sasoiko gauzak partekatzen dituzte bileretan eta gaur egungo egoerarekin konparatzen dituzte. "Oso garrantzitsua da norberak izan duen sufrimendu hori partekatzea, eta onarpena eta elkar ulertzea funtsezkoak dira".



*"Clarita: zure irrifarrak iraungo du
gure bizitzak eta bihotzak argitzen.
Beti gure bihotzean"*

VESGA ALIENDE FAMILIA

43. Antzerki Jardunaldiak

Martxoak 13, barixakua



"Orquesta de malabares"

Coliseoan
20:30ean

CÍA. PISTACATRO - CIELITO MUSIKA BANDA / Antzezleak: Arturo Cobas, Dulce Duca, Dani Fausto, Aitor Garuz / Zuzendaria: Pablo Reboleiro / Iraupena: 75 minutu

Musikaren eta zirkuaren arteko harreman honetan sei malabaristak eta musika banda batek jarduten dute taula gainean. Kontzertuaren erdian malabaristak aireko ballet horretako dantzariak dira. Klarineteak, saxoak eta tronpetak koadro espresionista bateko margolariak dira, eta boleak, mazoak eta uztaiek musikak eta zirkuak transmititzen dituzten sentimenduak eta emozioak marrazten dituzte airean. Cielitok lehen aldiz hartuko du parte Jardunaldiotan.

Martxoak 15, domeka



"Los hijos"

Coliseoan
20:30ean

PRODUCCIONES TEATRALES CONTEMPORÁNEAS / Antzezleak: Adriana Ozores, Susi Sanchez, Joaquin Climent / Zuzendaria: David Serrano / Iraupena: 100 minutu

Lanak ingurumenarekiko dugun erantzukizunaz hitz egiten digu, eta ondare gisa gure ondo-rengoei utziko diegun planetaz. Lucy Kirkwood antzerkigile britainiarrak idatzitako obra 2016an estreinatu zen Londresen eta hainbat bertsio egin dituzte, sari eta izendapen asko jasotzeaz gain. Trama Ingalaterrako ekialdeko kostaldean kokatzen da etorkizun hurbilean; bertan erretiratutako fisikari-bikotea bizi da, zentral nuklear baten hondamendiaz geroztik.

Martxoak 16, astelehena



"La isla"

Hezkuntza Esparruan
20:30ean

HISTRIÓN TEATRO / Antzezleak: Gema Matarranz, Marta Megias
Zuzendaria: Juan Carlos Rubio / Iraupena: 70 minutu

Maitasunez eta atsekabez betetako istorioan, amatasunari, baldintzarik gabeko maitasunari eta egunez egun bizi duten sufrimenduari buruzko galdera gogorrei aurre egin beharko dieten bi ama aurkituko dira ospitale bateko itxarongelan. Andaluziako konpainiak lotsatu eta erruz betetzen gaituzten sentimenduak taularatzen ditu, zintzotasunez eta ausardiarekin jorratutako piezan, "zer gertatzen da minak gainditzeko gaituenean" galderaren erantzun bila.

Martxoak 17, martitzena



"Zaldi urdina"

Coliseoan
20:30ean

AXUNI!, ARTEDRAMA, DEJABU / Antzezleak: Ander Lipus, Manex Fuchs, Urko Redondo, Miren Alcate / Zuzendaria: Ximun Fuchs / Iraupena: 90 minutu

80ko hamarkadako zaldi zuriaren mamuak -heroinaren izen metaforikoa- XXI. mendean hegan egiten du antzezlanaren gainetik; koprodukzioak tekno musikako gazte giroa birsortzen du, zaldi urdina substantzia berriarekin batera. Proiektu honek ikastetxei laguntzen die gazteei informazioa emateko alde aurreko lanean eta, ondoren, haien kezka eta ametsei buruz gogoeta egiteko, diruak, politikak eta poliziak gorputzutako botere baten barrenean.

Martxoak 19, eguena



"Imperator"

Hezkuntza Esparruan
20:30ean

MARICASTAÑA / Antzezleak: Hector Martinez, Chelo Cortiñas, Caterina Vázquez, Candela López / Zuzendaria: Fernando Dacosta / Iraupena: 75 minutu

Hitler boterera igo izanaren alegoria bezala Bertold Brechtek idatzitako "Arturo Ui-ren igoeira miragarria" obran oinarritutako antzezlan honetan igoeira hura gelditu ahal izan zela erakusten da, baina baita baldintza ekonomiko eta sozialek bultzatu zutela ere. Horrela, sasoi nahasietan hitz sendoetako jauntxo handiak altxatzen dira berriro, pentsamendu kritikoa kulturkerietako gauza bihurtuz, eta erakunde demokratikoak enperadoreen jauregi bilakatuz.

43. Antzerki Jardunaldiak

Martxoak 20, barixakua




"El coronel no tiene quien le escriba"

Coliseoan
20:30ean

OKAPI PRODUCCIONES / Antzezleak: Imanol Arias, Cristina de Inza, Jorge Basanta, Fran Calvo, Marta Molina / **Zuzendaria:** Carlos Saura / **Iraupena:** 80 minutu

García Marquezen eleberriaren egokitzapenean Imanol Ariasek lehen aldiz jardungo du profesional gisa Jardunaldiotan. Argumentuan, agure bikote bat ozta-ozta bizi da, koronelak geran emandako zerbitzuengatik agindutako pentsioa azkenean izango duela jakinaraziko dien gobernuaren gutun baten zain. Borrokarako oilarra da koronelari etxera jateko zerbait ekartzeko geratzen zaion itxaropen bakarra. Oilarra elikatu edo eurak elikatu, hor izango da dilema.

Martxoak 21, zapatua



"Around the world"

Coliseoan
20:30ean

BRODAS BROS / Antzezleak: Pol Fruitos, Lluç Fruitos, Berta Pons, Clara Pons, Marc Carizo / **Zuzendaria:** Lluç Fruitos / **Iraupena:** 75 minutu

Lana nabigazio-egunkari futurista bat da, konpainiak munduan zehar emandako biraren bizi-penak biltzen dituena. Mapping proiektio interaktibo, led edo laser jantzien bidez, oso lan teknologikoa sortzen dute, erritmo zorabiarri eta akrobazia ezinezkoekin. Gazteak zein helduak beretzeko, energiaz, teknikez, umorez eta irudimenez betetako ikuskizuna aurkezten du Triciclerekin elkarlanean jardun izan duen Brodas Bros Bartzelonako hiri-dantza konpainiak.

Martxoak 22, domeka



"Es mi palabra contra la mía"

Hezkuntza Esparruan
20:30ean

LUIS PIEDRAHITA / Egilea, antzezlea eta zuzendaria:
Luis Piedrahita / **Iraupena:** 80 minutu

Luis Piedrahitaren azken ikuskizunean, egunerokotasuneko eta "gauza txikien" inguruko bere umoreaz, arin eta burutsu, aztertzen du zergatik inor ez dagoen pozik tokatu zaionarekin, sakoneko gai existentzialen bidez. Azaleko gogoeta sakonak eta inprobisazioak eskaintzen dizkigu, zorrotz eta arretaz entseatuak. Norberaren liskar dialektikoa da, beste inoren kontrakoa ez dena, ondorio bakarrera iristeko: umoreak bakarrik egiten duela bizitza jasagarria.

Martxoak 24, martitzena



"Rámper, vida y muerte de un payaso"

Hezkuntza Esparruan
20:30ean

CANCAMISA TEATRO / Antzezlea: Juan Paños
Zuzendaria: Imanol Ituño / **Iraupena:** 70 minutu

Ramper 20. eta 30eko hamarkadetako pailazo ospetsuena izan zen: marrazki biziduna zuen bere aurpegiarekin, diskoak bere ahotsarekin grabatuta, film bat eta anis botilak bere izenarekin. Baina Ramper Ramon Alvarez Escudero ere bazen, familia aurrera ateratzeko gogor lan egin behar izan zuena eta pobre hil zena, artista asko bezala. Haren bizitza berpizten dute antzezlan honetan, Imanol Ituñoren eskutik umorearen genio ahaztuaren figuran sakonduz.

Martxoak 25, eguaztena



"Lloviendo ranas"

Coliseoan
20:30ean

ADOS TEATROA / Antzezleak: Mila Espiga, Lierni Fresnedo, Isidoro Fernandez, Tomas Vitoria, Sandro Laboni / **Zuzendaria:** Garbi Losada / **Iraupena:** 75 minutu

Flashback gisa, protagonistaren eskutik, bidaia egingo dugu bere bizitzara, bere gaixotasunaren prozesua ezagutuko dugu, bere ukazio istorioa, onarpenaren fasea, beldurrarena, buru-argitasunarena, umorearena, errebeldiarena... Barre eta negar egingo dugu berarekin, osasun mentalaren bide luzea eginez, iraganaren eta orainaren artean. Emaizta komedia dramatiko bat da, nahasmendu bat duen emakumea bere buruaz beste egiteko zorian dagoela.



XIMUN FUCHS
(antzerki zuzendaria)

“Euskal Herrian ez da drogaren egiazko auzirik egin”

‘Errautsak’, ‘Hamlet’ eta ‘Francoren bilobari gutuna’ antzezlanek zabalduz bide arrakastatsua jarraitu eta ‘Zaldi urdina’ antzezlanaren sortu dute Axut, Dejabu eta Artedrama konpainiek. Drogak Euskal Herrian utzi duen arrastoa eta gaur egun duen eragina irudikatzen du Unai Iturriagarekin eta Igor Elortzarekin idatzitako eta Ainara Gurrutxagak eta Ximun Fuchsek zuzenduriko obrak. Hilaren 17an, 20:30ean, Coliseoan emanaldia eskainiko dute.

- Nola landu duzue drogaren gaia ‘Zaldi urdina’ antzezlanean?

Justo Arriolaren ‘A los pies’ del caballo’ liburutik abiatu zen antzezlanaren ideia. Drogaren gaia oso garrantzitsua izan da eta da oraindik Euskal Herrian, droga nahiko erraz lortu daitekeelako hemen. Euskal Herrian gertatu den azken sarraski inportanteena izan da. Milaka pertsona hil dira drogen eta albo ondorioen eraginez, eta gai hori motxilan eramaten dute familiek oraindik. Gai hau gure artean aipatu genuenean, inguruko hainbat lagun ukitu zituela ikusi genuen. Beraz, gaia familien motxiletatik ateratzea eta gizartearen konpartitzea nahi izan dugu.

- Drogen errealtatea gordina da, baita antzezlanaren ere?

Antzerkia modu sinbolikoan eta estetikoan kontatzen da. Drogen errealtatea gordina da, noski, baina jendeak drogen momentu oso onak pasa dituela esango nuke. Droga gordina eta gogo-

rra da, pozoia delako, baina norberaren pentsaera eta poza irekitzeko, errealtetik askatzeko edo izarrak besarkatzeko atea ere bada. Kultura guztietan betidanik kontsumitu da droga. Droga arazoa izan da Euskal Herrian (80. hamarkadan heroinarekin), baina baita beste toki batzuetan ere (Amerikako indiarrentzat alkoholarekin, Opioaren Gerrak...). Kontua da gure herrian droga gazteria suntsitzeko sartu zutela eta belaunaldi bat suntsitu zuela. Euskal gatazkaren kontakizuna egiten denean sekula ez da aipatzen kontu hori.

- Drogarekin harreman estua izan du gu Euskal Herrian, baina ezkutuan edo itzalpean geratu den arazoa da?

Sasoi batean oso arazo nabarmena izan zen, droga ia edozein tokitan kontsumitzen zen, baina familiek isilean eramaten duten arazoa ere izan da. Euskal Herrian ez da drogaren egiazko auzirik egin eta ez dakit inoiz egingo den. Gai honekin hasi ginenean familiei esan nahi izan ge-

nien hau guztia ez zela euren ardura soilak, gizarte osoarena baizik, eta gizarte bezala erantzukizuna dugula. Euren osaba, anaia edo alaba ez da arazo horretan galdu bera soilik galdu delako, nahita gertatu da modu antolatua eta adostu batean.

- Antzezlan hau sortzeko ‘Errautsak’, ‘Hamlet’ eta ‘Francoren bilobari gutuna’ antzezlanetan erabilitako formula bera erabili duzue Axut, Dejabu eta Artedrama konpainiekin, eta Unai Iturriaga eta Igor Elortza bertsolariekin. Nola moldatzen zarete?

Orain dela hamar urte hasi zen gure arteko elkarlana euskal antzerki bat diseinatzeke, asmatzeko eta eraikitzeke asmoz. Euskal Herri guztian ibiliko den, euskal herritar guztiak bilduko dituen eta bakoitzak bere lekutik bere aberastasun guztiekin egindako euskal antzerkia egin nahi genuen. Pixkanaka publikoarekin batera zerbait eraiki dugu, publikoaren konplizitate gabe ezin delako horrelako mundu bat eraiki.

Saxos del Averno etzi Portalea Musika Klub-ean

Domeka arratsaldean, 19:30ean hasita, “suzko Rhythm and Bluesa” eskainiko du “infernuko familiak” Portalea Musika Klubak martxorako antolatutako saioan. Jatorrian talde instrumentala izan zen Saxos del Averno-k Adrian Costa bluesman galiziarraren ahotsa eta gitarra ditu lagun. Berarekin batera, Dani Niño, Ariel Bringuéz eta Luis Verde saxo jotzaileak, Chavi Ontoria teklista eta Miguel Benito bateria izango dira Roasted Sinner disko berria aurkezten. Taldearen eragin nagusiak 50. eta 60. urteetako musikan, Rhythm and Blues eta erritmo latinoetan, eta blues, jazz eta funk-ean aurkitu ditzakegu, “ia musika beltz guztia eta antzekoak, betiere infernuko labetik igarota”. Sarrerak 10 eurotan daude salgai, 7 eurotan Coliseoaren Laguna txartelarekin.





Jaso dute saria Aratosteetako lehiaketako irabazleek

Eguaztenean etorri zitzaizkigun sari bila Aratosteetarako antolatu genuen argazki lehiaketako irabazleak. Aurtengo lehiaketako argazki irabazlea Guridi tabernako lantaldeak gurekin Instagram bitartez partekatu zuena izan da eta saridunek pozarren jaso zituzten opariak, lehiaketarako aukeratu zuten argazkiarekin egindako Aratosteetako oroigarria tartean. Zorionak, ekipo!

Satur Peña eta Isabel Aliaga artisten grabatu erakusketa zabalduko da gaur

Gaur arratsaldean zabalduko dute "Lurra, ura eta airea harmonian", Satur Peñak eta Isabel Aliagak osatzen duten Saisa Taldearen lan grafikoa aurkezteko erakusketa, Portalean. Getxotik datozen bi artistak Arte Ederretan lizentziatuak dira, Leioako EHU-n. Herritik kanpora bizi arren, Satur Peña eibartarra da eta, besteak beste, Ego Ibarra batzordeak 2008an argitaratu eman zuen "San Andres de Eibar" parrokiako erretaulari buruzko liburuaren egilea da. Saisa Taldeak grabatu-erakusketa asko egin ditu orain arte eta, artista bien berbetan, "guretzat erakusketa bakoitza erronka berri bat da eta, horregatik, batetik bestera tartea lagatzen ahalegintzen gara, horrela hurrengo erakusketarako lan berri batzuk egiteko denbora izateko".



Andrek Eibarko industrializazioari egindako ekarpenen liburua

Gaur 19:00etan, "Emakumerik gabe, Eibar ez litzateke gaur egungoa izango. Emakumeen aztarnak Eibarko industrializazio prozesuan" Zaida Fernandez, Savina Lafita eta Luz Maceirak idatzitako liburua aurkeztuko dute Portaleko erakusketa gelan eta, horrekin batera, martxoaren 29ra arte ikusgai egongo den gaiaren inguruko erakusketa parte-hartzailea zabalduko dute. Erakusketak ohiko ordutegian zabalduko dute: martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era.

Ekitaldi biak Martxoaren 8ko lan-taldeak (...eta kitto! Euskara Elkarte, Arrate Kultur Elkarte, Hitzez, emakume independenteak, Eibarko Gurutze Gorriko Errefuxiatuen programa eta Berdintasun Zerbitzua-Andretxea) martxoarako prestatu duen egitarauaren barruan antolatu dituzte.



40 txio aurkeztu dituzte lehiaketara

Martxoaren 22a izango da botua emateko azken eguna Eibarri buruzko txio lehiaketan. Herriko euskaltegi biek eta Euskara Sailak elkarlanean antolatutako lehiaketara 40 txio inguru aurkeztu dituzte eta www.eibarko-euskara.eus helbidean irakur daitezke. Gehien gustatzen zaizuenari botua emateko ere helbide horretara jo beharko duzue. Bi sari banatuko dituzte: bat botu gehien jasotzen dituen txioarentzat eta bestea, berriz, epaimahaia hautatutako txioarentzat.



Esther Galarzaren lanak Donostian

Sorginei buruz Donostian martxan dagoen "Sorginak!" erakusketan parte hartzen ari da Esther Galarza eibartarra, zeramikazko hainbat piezarekin. Erakusketan 44 emakume artistaren lanak bildu dituzte eta bakoitzak sorginei buruzko bere ikuspegia islatu du, teknika ezberdinen arabera sortutako artelanetan. EmPoderArte Emakume Artisten Nazioarteko Elkarteak antolatutako erakusketa Okendo Kultur Etxean (Nafarroa Hiribidea, 7) ikus daiteke eta apirilaren 17ra arte joan daiteke bisitan, astelehenetik barixakura 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:30era eta zapatuetan, berriz, 10:00etatik 14:00etara eta 16:30etik 20:00etara (domeka eta jaiegunetan itxita).

Irigoien argazki-erakusketa Gironan

Martxoaren 28ra arte egongo da ikusgai "Neurri handiak", Jose Luis Irigoien eibartarraren argazki erakusketa Torroella de Montgrin (Gironan). Amics de la Fotografia de Torroella de Montgrin-antolatutako erakusketa Clastre de l'Hospital-en ikus daiteke, 10:00etatik 19:30era.



Japoniako haikuari buruzko hitzaldia emango dute hilaren 26an

Martxoaren 26an "haiku" japoniarrari buruzko hitzaldia emango du Jose Luis Goikoetxeak, 19:00etan Portalean. "Haikua" berba Japoniako poesia mota bat izendatzeko erabiltzen da. Berez, hamazazpi silabako poema laburra da, bost, zazpi eta bost silabako hiru bertsoetan idatzitakoa, hu-

rrenez hurren. Japonian jaiotako generoa izan arren, azken urteotan handik kanpora, mundu osoan zehar zabaltzen joan da. Goikoetxeak emango duen hitzaldian, "haikuaren" ezaugarriak, idazteko arauak eta poesia horrek dauzkan helburuak azalduko ditu, besteak beste. Bestalde, hitzaldira jo-



andakoen artean interesa dagoela ikusiz gero, poesia mota hori herri mailan landuko lu-

keen taldea osatzeko aukera dagoela adierazi dute antolatzailleek.

Eibarko Koro Gazteak apirilean egingo duen musikalaren sarrerak salgai daude

EKGaleriak izenburuko musikala taularatuko du Eibarko Koro Gazteak apirilaren 25ean, Coliseo antzokian, 20:30etik aurrera. Aste honetan sare sozialen bidez adie-



razitakoaren arabera, "saltzailleak prest gaude lanean hasteko; hori dela eta, saltzeko gauza ikaragarri batekin gatoz! Apirilaren 25ean egingo dugun musikalaren sarre-

rak ipini ditugu salgai!". Asotelehen arratsaldean Coliseoko leihatilan eta Kutxabank bitartez hasi ziren saltzen eta, denak agortu bitartean, ohiko aurrealmentan erosteko au-

kerak egingo da: Coliseo antzokiko txarteldegian astelehen eta barixakuetan, 17:30etik 19:30era eta interneten, berriz, Kutxabank zerbitzuaren bitartez.

Martxorako erakusketak tabernetan, Deportiboko argazkilarien eskutik

Eibarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldearen eskutik, martxoan hiru erakusketa hauek ikusteko aukera egongo da beste horrenbeste tabernetan: Depor tabernan, bere sorreraren 50. urteurrenaren harira Klub Deportiboko Urpeko Jarduera Batzordeak prestatu duen argazki-bilduma ikus daiteke; El Ambigu kafetegian, berriz, Jose Ignacio de Castro eibartarraren argazkiak ipini dituzte ikusgai; eta Portalea tabernan, azkenik, aurreko hileaz geroztik martxan dagoen Jaume Millanen argazki erakusketak jarraituko du, hilaren amaiera arte.






Ash Grunwald Band
bihar ERMUAN

Australiako rock-blues saioa izango da bihar Ermuko Lobiano jauregian, arratsaldeko 20:00etatik aurrera. Azken sei urteotan Australiako eta Zeelanda Berriko aretoak bete dituen taldeak bederatziko disko osatu ditu hamabi urteren buruan, Estatu Batuetan, Kanadan eta Erresuma Batuan arrakasta izateaz gain. Surfa eta bere sorterriko naturaren defendatzaile sutsua, mezu politikoz betetako bere musikan ez ditu albora uzten erritmo biziak eta groovea. Power hirukote batekin dator, XXI. mendeko psikodeliari, sci-fi eta rock zingiratsuari jarraituta.

telefono jakingarriak

- SOS deiak.....112
- Pegora.....010
- Udaletxea.....943 70 84 00
- Portalea.....943 70 84 39
- Udaltzaingoa.....943 20 15 25
- Mankomunitatea.....943 70 07 99
- Debegesa.....943 82 01 10
- KIUB.....943 20 38 43
- Epaitegia.....943 03 34 00
- Iberdrola.....900 17 11 71
- Naturgas.....902 12 34 56
- DYA Larrialdiak.....943 46 46 22
- Gurutze Gorria.....943 22 22 22
- Eibar Ospitalea.....943 03 29 00
- Mendaro ospitala.....943 03 28 00
- Anbulategia.....943 03 25 00
- Torrekua.....943 03 26 50
- Errepideak.....902 11 20 88
- Ertzaintza.....943 53 17 00
- Eusko Tren.....944 33 33 33
- Lurraldebus.....900 30 03 40
- Pesa.....900 12 14 00
- Taxiak.....943 20 30 71
-943 20 13 25
- Andretxea.....943 70 08 28
- Alkohol.Anon.....629 14 18 74
- Al-Anon/Alateen.....650 26 59 63
- Grupo Egun Bat (Jokazale Anonimo eta Familiak) ...699 37 75 20

eguraldia (EUSKALMET.NET)



hildakoak

- Fernando Gabiola Gaztelu. 77 urte. 2020-III-5.
- Ines Alegria Perez de Lastra. 96 urte. 2020-III-6.
- Clara Saez Aliende. 59 urte. 2020-III-7.
- Cristobal Garate Urzelai. 87 urte. 2020-III-9.
- Ana M^a Oiarbide Aranburu. 74 urte. 2020-III-10.
- Andoni Aldazabal Mugerza. 90 urte. 2020-III-10.

jaiotakoak

- Nazaret Valdes Alunda. 2020-II-25.
- Izar Urkia Gonzalez. 2020-III-4.
- Andres Ariznabarreta Mtnez-Alcocer. 2020-III-5.

farmaziak

- Barixakua 13
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Zapatua 14
EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)
- Domeka 15
EGUNEZ **Morgado** (San Agustin, 3)
- Astelehena 16
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
- Martitzena 17
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Eguaztena 18
EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
- Eguena 19
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Barixakua 20
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Zapatua 21
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
- Domeka 22
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Astelehena 23
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- Martitzena 24
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Eguaztena 25
EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)
- Eguena 26
EGUNEZ **Morgado** (San Agustin, 3)
- Barixakua 27
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)

GAUEZ BETI - 2020AN-
Barandela (Z. Agirre, 4)

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | 7 | | | 2 | | | |
| | | | 9 | | | | 5 |
| 6 | | 1 | 5 | | | | |
| 9 | | | 2 | 1 | | 5 | 3 |
| | 5 | | | | | | 2 |
| | 1 | 8 | | 5 | 3 | | 9 |
| | | | | 4 | 9 | | 3 |
| | 4 | | | 6 | | | |
| | | | 8 | | | 1 | 4 |

SUDOKUA

AURREKOAREN EMATZA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6 | 8 | 7 | 9 | 5 | 1 | 3 | 2 | 4 |
| 3 | 2 | 1 | 7 | 6 | 4 | 8 | 9 | 5 |
| 4 | 5 | 9 | 3 | 2 | 8 | 1 | 7 | 6 |
| 2 | 3 | 4 | 8 | 1 | 7 | 6 | 5 | 9 |
| 5 | 7 | 8 | 6 | 9 | 2 | 4 | 3 | 1 |
| 9 | 1 | 6 | 5 | 4 | 3 | 2 | 8 | 7 |
| 7 | 4 | 2 | 1 | 8 | 5 | 9 | 6 | 3 |
| 8 | 6 | 3 | 4 | 7 | 9 | 5 | 1 | 2 |
| 1 | 9 | 5 | 2 | 3 | 6 | 7 | 4 | 8 |

Barixakua 13

AURKEZPENA

19:00. "Emakumeen ekarpenak Eibarko industrian" erakusketaren inaugurazioa eta "Emakumerik gabe, Eibar ez litzateke gaur egungoa izango. Emakumeen aztarnak industrializazio prozesuan" liburuen aurkezpena. Portalean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "Orquesta de Malabares" (Pistacatro, Eibarko Cielito Musika Banda). 5 euro. Coliseoan.

Zapatua 14

HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30. Astelena Haur Parkea. 3 euro (doan EMGI-aren bonoarekin). Astelena frontoian.

TAILERRA

11:00. Musika tailerra familian (Musikume). Bi saio. 11:00etan (0-9 hilabete) eta 12:00etan (10-18 hilabete). Plaza mugatuak. Informazio gehiago Haurren sailean. El Corte Inglesean.

EIBARKO DUATLOIA

16:45. XXIX. Eibarko Duatloia. Irteera eta helmuga Untzagan (amaiera 18:30ak aldera).

KIROLA FAMILIAN

17:30. Jolasteko gune irekia, HHko ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipurua kiroldegian.

Domeka 15

KIROLA FAMILIAN

17:30. Jolasteko gune irekia, HHko ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipurua kiroldegian.

PATINAK IPURUAN

17:45. Ipurua kiroldegian.

MUSIKA

19:30. Los Saxos del Averno taldearen kontzertua (Portalea Musika Kluba). 10 euro. Portalean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "Los hijos" (Producciones Teatrales Contemporaneas). 15 euro Coliseoan.

Astelehena 16

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "La isla" (Histrion Teatro). 12 euro. Hezkuntza Esparruan.

Martitzena 17

IKASTEN

10:00. "Literaturatik musikara" hitzaldia, euskeraz, Asier Serranoren eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.

IKASTEN

16:00/19:00. Puntu-tailerra.
17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

MAHAINGURUA

18:00. "Womenekin: Emakumeek... zer ezin dugula egin?". Armagintzaren Museoa.

MENDI JARDUNALDIAK

19:00. "Eibartarrak Cervinon" emanaldia, Egoitz Elduayenaren eskutik (Klub Deportiboko Mendi Jardunaldiak). Portalean.

ZALDIBAR ARGITU

19:00. Zaldibar Argitu herri-plataformaren bilera irekia. Arrate Kultur Elkarte.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "Zaldi urdina" (Axut, Artedrama, Dejabu). 12 euro. Coliseoan.

Eguaztena 18

IKASTEN

08:30. Ibilaldia: Gasteiz-Salburua (Buesa Arenatik). Bazkaria eramán. Autobusaren irteera Ego Gainetik.

NAGUSIEN HAMABOSTALDIA

11:00. Aurkezpena. Udaletxeko pleno aretoa.

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

Eguena 19

KALEETAN KANTUZ

18:00. Dantza taldearen entsegua. Untzagan jubilatutako etxean.

19:30. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "Imperator" (Maricastaña Aula de Teatro Universitaria). 5 euro. Hezkuntza Esparruan.

Barixakua 20

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "El coronel no tiene quien le escriba" (Okapi Producciones). 15 euro. Coliseoan.

Zapatua 21

UDABERRIKO AZOKA

09:00/14:00. Udaberriko Lore eta Landareen XI. Azoka. Erakusketak eta salmenta. Urkizun.

HAUR PARKEA

11:00/14:00 eta 16:30/20:30. Astelena Haur Parkea. 3 euro (doan EMGI-aren bonoarekin). Astelena frontoian.

BISITA GIDATUA

17:00. Doakoa, erakusketak ezagutzeko, euskeraz (gazteleraz, 18:30ean). Armagintzaren Museoa.

KIROLA FAMILIAN

17:30. Jolasteko gune irekia, HHko ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipuruan.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "Around the world" (Brodas Bros). 5 euro. Coliseoan.

Domeka 22

KONTZERTUA

12:30. Usartza Txistulari Banda. Untzagan.

KIROLA FAMILIAN

17:30. Jolasteko gune irekia, HHko ume (2-5 urte) eta gurasoentzat. Ipuruan.

PATINAK IPURUAN

17:45. Ipurua kiroldegian.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "Es mi palabra contra la mia" (Luis Piedrahita). 15 euro. Hezkuntza Esparruan.

Martitzena 24

IKASTEN

16:00/19:00. Puntu-tailerra.
17:00/20:00. Joskintza-tailerra. Portalean.

HITZALDIA

19:00. "Klima aldaketaren nazioarteko gailurrak: non gaude eta nora goaz?", Elisa Sainz de Murieta (Asteklima). Portalean.

ZALDIBAR ARGITU

19:00. Zaldibar Argitu herri-plataformaren bilera irekia. Arrate Kultur Elkarte.

MUNDUKO JANARIAK

19:00. Tailerra, ...eta kitto!-ren eskutik. Portalean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "Ramper, vida y muerte de un payaso" (Cancamisa Teatro). 12 euro. Hezkuntza Esparruan.

Eguaztena 25

EIBARKO KANTUZALEAK

19:00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

URTEKO BATZARRA

19:30. ...eta kitto! Euskara Elkarte (2. deialdia). Lokalean (Urkizu, 11).

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20:30. "Lloviendo ranas" (Ados Teatra, Acronicas Producciones). 12 euro. Coliseoan.

Eguena 26

HITZALDIA

19:00. "El haiku japonés", Jose Luis Goikoetxearen eskutik. Portalean.

MENDI JARDUNALDIAK

19:00. "Mis montañas" hitzaldia, Juan Vallejoren eskutik. Armeria Eskolan.

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (barkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazu. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.




Zorionak, PELLO!! Bixar 8 urte beteko dozuz-eta. Patxo potolo bat famelixaren eta, batez be, Nile, Pol eta leran partez.



Zorionak, ELENE, etzi 6 urte beteko dozuz-eta. Jaso tximino besarkada haundi bat etxekuen eta, batez be, Julenen partez.



Zorionak, AMAMA, gaur 90 urte betetzen dozuzelako. Famelixa guztiaren eta, batez be, Alain eta Telmoren partez. Maite zaittugu!



Zorionak, ADUR, atzo urtetxua bete zendu-eta. Famelixa guztiaren eta, batez be, Jare zure arrebaren partez.



Zorionak, JULEN, gaur bertan 8 urte egitten dozuz-eta. Egun edarra pasa, famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IBAN, eguaztenian 5 urte egin zendu-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, AMAIA, astelehenian 6 urte!!! Oso ondo pasa zure egunian. Musu erraldoia etxekuen partez!



Zorionak, GARAZI Egurrola Mugerza, hillaren 11n 8 urte egin zendu-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, LAIA Castro, hillaren 5ian 5 urte bete zendu-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, ANE, domekan 8 urte beteko dozuz-eta. Famelixaren eta, batez be, Mara eta Xabi anai-arreben partez.



Zorionak, CRUZ NATHALI, bixar 4 urte beteko dozuz-eta. Amatxo, aitatxo, famelixakuen eta laguntxuen partez.



Zorionak, LUR, hillaren 11n 11 urte bete zendu-eta. Famelixa guztiaren partez.



Zorionak, SARE eta EIDER!! Oso ondo pasa zuen egunian. Musu haundi bat danon partez.



Zorionak, EKAIN, domekan 4 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, IOAR eta IXABAREN partez.



Hillaren 10ian LOREA gure señoritak 13 urte egin zittuan, eta 19xan GALDER gure fenomenak 9 beteko ditte. Zorionak famelixaren partez!



Zorionak, MARWA, atzo 8 urte bete zendu-eta. Famelixaren partez.

zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

14an: 19:45
15ean: 20:30 22:30
16an: 20:30

"El doble más quince"

Zuzendaria: Mikel Rueda



(2 ARETOAN)

14an: 17:00, 19:45, 22:30
15ean: 20:00
16an: 20:30

"La candidata perfecta"

Zuzendaria: Haifa al-Mansour



(ANTZOKIAN)

14an: 17:00⁽¹⁾, 19:45, 22:30
15ean: 17:00^(1 Aretoa), 20:00⁽¹⁾
16an: 20:30

"The Gentlemen"

Zuzendaria: Guy Ritchie




(ANTZOKIAN)

14an: 17:00
15ean: 17:00^(2 Aretoa)

"Quackers"

Zuzendaria: Viktor Lakisov



i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako **PREZIOAK**, beti ere **4 ASTERAKO**, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

1. Etxebizitza

1.2. Errentan

- Etxebizitza hartuko nuke alokairuan. 2 logelarekin. Tel. 660-047305.
- Etxea hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. Tel. 632-337083.
- Pisia alokatzen da Kantabrian Aste Santuan. 2 logela, egongela, sukaldea eta 2 bainu. 2 garaje plaza: bat kanpoan eta bestea barruan. Urbanizazioak igerilekua eta paddle pista ditu. Hainbat hondartza 20 minutura autoz. Santander ordu erdira. Inguru lasaia. Zenbait hondartzetatik gertu. 75 euro eguneko. Tel. 617-272634.
- Pisia hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 631-907807.

3. Lokalak

3.1. Salgai

- Garaje itxia salgai Polonia Etxeberria kalean. Tel. 610-835256.

3.2. Errentan

- Lokala alokagai Urkin. 22 m². Musika taldeen entsegetarako prestatua (guztiz isolatua). Komunarekin. 150 euro hilean. Tel. 679-843282.
- Garajea hartuko nuke alokairuan Urki, Txalxa Zelai edo P. Etxebarria inguruan. Tel. 645-007388. Jasone.
- Lokal argitsua alokagai Jardñeta kalean. Gazteentzat edo musika-taldeentzat aproposa. 140 m². Etxebizitzik ez eraikinean. Tel. 656-756485.

4. Lana

4.1. Lan bila

- Neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko eta tabernari edo dendarri moduan lan egiteko. Tel. 644-071237.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Esperientzia eta ziurtagiriak. Tel. 603-514085.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 612-246551.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-876380.
- Gizonezkoa eskaintzen da gauzez nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 631-782442.
- Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Esperientzia. Tel. 637-137104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 617-810065.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Externa. Tel. 612-202116.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ziurtagiriarekin. Tel. 667-060292.

- Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, eraikuntzan jarduteko eta mendiak garbitzeko. Tel. 602-188264.
- Neska euskalduna eskaintzen da goizez nagusiak edo gaixoak zaintzeko. Tel. 617-571210.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 643-584198.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 623-319422.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-820091.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 643-115699.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-872627.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-492550. Alicia.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-652496. Ana.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 632-486770. Teresa.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-800924. Ana.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Externa. Tel. 631-907532.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 635-480807.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 620-683911.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 665-348938.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-776998.
- Mutila eskaintzen da sukaldari laguntzaile moduan lan egiteko. Tel. 643-972119.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-721980.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 10:00etatik 14:00etara. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 604-120104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak edo garbiketarako egiteko. Tel. 634-621390.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 640-742618.
- Sendagile kubatarra eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Eusko Jaurlearitzako ziurtagiriarekin. Tel. 688-863044.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, sukalde-laguntzaile moduan eta garbiketarako egiteko. Esperientzia. Tel. 643-929554.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukalde-laguntzaile moduan. Tel. 602-378091.
- Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Asteburuetan. Tel. 688-724060.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 3 urteko esperientzia eta erreferentziak. Tel. 688-712075.
- Neska eskaintzen da etxeko lanak edo garbiketarako egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 640-895039.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 696-802587.

- Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Ziurtagiriak eguneratuta eta erreferentziak. Tel. 699-587132.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 602-842219.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (07:00etatik 08:30era eta 18:30etik 22:30era). Baita asteburuetan ere. Tel. 660-542155.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko (baita gauzez ere) eta etxeko lanak egiteko. Tel. 641-840425.
- Gizona eskaintzen da sukalde-laguntzaile jarduteko, saltzaile moduan eta nagusiak zaintzeko. Tel. 625-997599.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ziurtagiriarekin. Tel. 632-337083.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 612-296098.

4.2. Langile bila

- 50-60 urte bitarteko emakumea behar da Elgoibarko baserri batean nagusia zaintzeko. Arreta Soziosanitario ikastaroarekin. Tel. 653-723095. Pili.
- Kamarera behar da jaiegun eta asteburuetan lan egiteko. Tel. 659-539861.
- Haginetarako higienista edo laguntzaile behar da. Berehala lanean hasteko. Bidai curriculum: hortzklirnika.06@gmail.com

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergo partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. Goiz eta arratsaldez. Tel. 678-937827.
- Euskarazko klaseak ematen dira. Perifertarako prestakuntza: IVAP, HABE... Umeenitzako eskolako errefortzua. Tel. 620-608065.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

6. Denetarik

6.1. Salgai

- Kawai pianoa salgai. Oso egoera onean. Aulkia opari. Tel. 667-549101.
- Berbalagun talde bat osatu nahi dugu ingelesez berba egiteko. Horretarako, amahizkuntza ingelese duen norbait behar dugu; trukean euskera/erdera beharko balu, gu prest laguntzeko. Tel. 628-780910.
- Auto gainean jartzeko kutxa salgai. Evospace 400s etxekoa. Tel. 678-075299.

943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus

Deskontu paregabeak Eco Move Days

Hilabete honetan bakarrik

7.000€-ra
arteko deskontuarekin

Hyundai Finance-rekin finantzatzuz gero

Zortea duzu. Izan ere, hil honetan, Hyundaiako **Eco Move Days** delakoak izango ditugu. Zatoz eta aldatu auto zaharra Hyundai berri ekologikoago baten truke, eta eraman **7.000 €-ra arteko deskontuarekin**. Zeren zain zaude? Zatoz hurbilen duzun kontzesionariora, eta aldatu, Hyundaiaren Eco Move Days delakoekin. Hilabete honetan bakarrik.

DARSO CAR
HYUNDAI KONTZESIONARIO OFIZIAL BERRIA GIPUZKOARAKO
WWW.DARSOCAR.COM

GRUPO EASO MOTOR

ELGOIBAR
Olaso Polig., 17
943 74 14 80

Erakusketa berria
ARRASATE
San Andres Auzoa, 6
943 79 70 06

HYUNDAI

5 BERMEA KM MUGARIK GABE

Hyundai Tucson gama hibridoa 48V: co2-emisioak (gr/km): 143-180. Kontsumo mistoa (l/100 km): 5,5-6,9. WLTP homologazio-ziklo berriaren arabera lortutako kontsumo- eta emisio-balioak. CO2 emisioak (gr/km): 113-147, NEDC ziklo korrelatuaren arabera lortuak. Hyundai i30 gama: co2-emisioak (gr/km): 118-153. Kontsumo mistoa (l/100 km): 4,5-6,7. WLTP homologazio-ziklo berriaren arabera lortutako kontsumo- eta emisio-balioak. CO2 emisioak (gr/km): 96-139, NEDC ziklo korrelatuaren arabera lortuak.

i30 1.6 CRDI 69,9KW (95CV) KLASA MY19-ri aplikatuko zaio deskontua. 7.000 €-ra arteko deskontua izango du ibilgailuaren prezioan, BEZA, garraioa, matrikulazio-zerga barne. Deskontua honen arabera izango da: sustapenaren deskontua, kontzesionarioaren ekarpena eta Hyundai Aldaketa Plana. Plan hori aplikatuko da ibilgailuaren finantzaketari lotutako mantentze-lanak. Eco Move Days eskaintza, Hyundai Finance-ren Hyundai MOVE produktua Banco Cetelem S.A.U. ren bidez finantzatzeko duden bezero partikularrei aplikatukoa, gutxienez 10.000 euro, 36 hilabete epean, eta gutxienez 36 hilabeteko iraupena. Finantza entitateak aztertu eta onetsi beharreko finantzaketa. Eskaintza honek 2020/03/31ra arte balio du. Bistaraturako ereduak: Tucson Style, i30 N Line, i30 Fastback eta Tucson N Line. Informazio gehiago Hyundai kontzesionarioen sarean edo www.hyundai.es helbidean.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

2020-2021

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

Ate Irekien Jardunaldia

Martxoak 26 (Osteguna) 18:00

Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industrialia
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialia

www.mondragon.edu/gmhz
orientazio.lhm@mondragon.edu
664 298 704 • 664 298 683

M
Mondragon
Unibertsitatea

GOI
Mondragon
Unibertsitatea

LABORAL
KUTXA

HETEL

Fp
EUSKADI
LANDE HEZIKETA

EUSKADI 2020 RENOVE PLANA EUSKADI 2020 RENOVE PLANA EUSKADI 2020 RENOVE PLANA EUSKADI 2020 RENOVE PLANA

5.000€-ra
arteko deskontua



Eusko Jaurlaritzaren funts mugatuak



Focus

Puma Berria



Kuga Berria

Fiesta



KONDIA
www.fordkondia.com

Zatoz Ford Kondiara zure auto zaharrarekin, eta eraman berri bat.

Gobernuaren laguntza kudeatzen dizugu

EIBAR

Otaola Etorb., 22
20600 Gipuzkoa
T. 943 202 091

IURRETA

Santa Maña Auzoa, 19
48215 Bizkaia
T. 946 815 569

Euskadiko Ford sarea

IRAGARRITAKO FORD GAMA AUKERARIK GABE: WLTP ZIKLO MISTOA, 1,4-7,1 L/100 km-KOA. 32 ETA 161 G/KM BITARTEKO CO2-WLTP EMISIOAK (26 Q 136 G/KM NEDC), INDARREAN DAGOEN ARAUDIAREN ARABERAKO NEURRIAK. CO2-aren emisio-balioak aldatu egin daitezke hautatutako ekipamenduaren arabera. NEDC balioak ibilgailuaren erosketari lotutako fiskalitatea kalkulatzeko kontuan hartzen direnak dira.

5.000 €-ra arteko deskontua, zergak barne. Zenbateko horrek barne hartzen ditu BEZa, IEDMTa (Zenbait Garraiobideren gaineko Zerga Berezia, autonomia-erkidego batetik bestera aldatzen dena; beraz, kasu bakoitzean berrikustea gomendatzen da), sustapen-deskontuak, emakida-ekarpena eta Eusko Jaurlaritzaren PAVEA Planaren ekarpena. Ezinbestekoa da Eusko Jaurlaritzaren baldintzak eta betebeharrak betetzea, plan honetan sartu eta ezarritako laguntzak jaso ahal izateko. Markaren sustapen-deskontuak 20/03/31ra arte egongo dira indarrean. PAVEA Planaren ekarpena funtsak agortu arte egongo da eskuragarri. Ez da bateragarria beste deskontu batzuekin. ford.es